

**DOMEKA
ETA
JAIEGUNETAKO
OSPAKIZUNAK
ABADE BAGARIK**



**DOMEKA
ETA
JAIEGUNETAKO
OSPAKIZUNAK
ABADE BAGARIK**

Editorial «La Gran Enciclopedia Vasca»
Bilbao

1982



EUSKERATZAILLE:

Kerexeta'tar Jaime.

BEAR DAN BAIMENAZ

© Kerexeta'tar Jaime.
San Roque, 24.
Elorrio (Bizkaia).

ARGITARATZAILLE:

«La Gran Enciclopedia Vasca».
Calzadas de Mallona, 8-2.º.
Bilbao - 6.

IRAR-LANTEGIA:

«Gráficas Lizarra, S. L.».
Ctra. Pamplona, 43.
Lizarra-Estella (Nabarra).

ISBN: 84-248-0746-4.

Depósito Legal: NA-462-1982.

JAKINGARRI BATZUK

Une ta toki batzuetan gaitz egiten da domeka ta jaiegunetako Eukaristia ospatzea. Parrokia batzuk —txikiak batez be— abade bagarik geratu daitezke.

Orretarakoxe dator liburu au, abade-utsune ori **zelanbait** beteteko, guztiz bete ezarren be.

I. OSPAKIZUNAREN ZUZENDARIA

Abaderik ez dagoanean, ospakizuna zuzentzen dauanak ez dau abadearen lekua artzen, eta ezetara be ez dau ori artzen dauanik agertu bear.

Diakonua ez ba'da, ez dau eliz-soiñekorik jantziko; ez dau abade-jarlekua artuko, ezta eliztarrak «Jauna zuekin» berben bidez agurtuko be.

Parrokiako abade-buruak argi ta garbi azalduko dautse bere eliztarrari ospakizunaren zuzendariaren eginkizuna, naasteak kentzeko.

Ospakizunaren zuzendariak egoki ikasi bear izango dau bere eginkizuna, liburu au aurrean izanik.

Ospakizunak zati bi izango ditu, SARRERA ta AZKEN-AGURRAz gaiñera.


II. ITZAREN LITURJIA

Irakurgaien ostean, abadeak egindako homilia irakurriko dau zuzendariak. Eta homiliaren ostean, isillaldia.

III. EUKARISTIA EMOTEA

Eukaristia emotea, Mezatik kanpo egiten danez egin bear da.

Orretarako, «Gure Aita» esan aurretik, eskerrak emoteko eskari bat egiten da. Baiña ez da naastu bear Mezako Eukaristi-otoitzakaz.



DOMEKETAKO BATZARRAK, MEZA BAGARIK

Domeka bakotxean eliza guztietan Mezea emoteko abade gutxi dagozan ezker, eliztarrak domeketako batzarrak euren abade bagarik egin bear izango dabez. Ori bidezko da?, egoki da?

Bai, baiña errazoi batzuk aurrean izanik. Ona emen Aita Santu Paulo VI'garren berbak Prantzia'ko gotzaiñai:

- garrantzi aundikoa da domeketako batzarra,
- baiña baita Mezako Opariak dauan garrantzi sakona be;
- garrantzi aundikoa da laikoen erantzupidea,
- baiña baita abadearen eginkizun berezia be.

Ez dago Elizarik domeketako batzar bagarik

Elizea: Domeka bakotxean batzen dan erria.

Kristauak munduan bizi dira. Euren antzekoen bizitza daroe, baiña beste era batera, edo bardin dana, fedean, itxaropenean eta alkar-maitasunean. Munduan bizi dira, bai, baiña ez dira «munduarenak». Jaungoikoaren Itzak «dei» egiten dautse batzarrera, Jaunaren izenean «batzen» dira. Ez gero eurak batera pozik egotearren, Kristo'ren bitartez, Espirituagan, Aita goratzeko baiño, baita anaiakana bialtzen dauzan eginkizuna artzeko be.

Orrela, munduan daben euren deiari zintzo eusteko laguntzen dautse batzarrak kristauai. Geiago oraindiño, «batzarrak osotzen dau Elizea. Batzarra da bere Jauna onartzen dauan Elizea eta Kristo'ren Eliza lez agertzen dana. Batzarra da, zelanbait, salbamen-sakramentua Jesu-kristo'gan andra-gizon guztientzat. Elizeak salbamen ori andra-gizonak batuaz iragarten dau, batzarra kristauai noizean-bein bizierazorik». (Mons. Coffy).

Domeka ta jaiegun guztietan Meza osoa entzutea agintzen dau Elizeak, baiña geiago oraindiño egun orreitan batzarrean eskuartzeko bearrizana. Domekea Jaunaren eguna da; orregaitik, Kristauak, guztiak ba-

tera, egun ori Jaunari eskintzen dautsoe. Kristo'k dei eginda, Elizea anai-batzarra dala agertzen dautsoe munduari. Gogoa izan naiz ez izan, neketsua izan naiz ez izan, kristauak domeketan euren anai-arrebakaz batzen dira, guztiak batera alkar-janaritzeko eta euren fedea autortzeko. Abaderik ezean, kristauak eurak egin bear dabe batzarra domeketan. Mezako Oparirik ezin eskiñi ba'daikée be, batzarra egiteko beartuta dagoz.

Domeketako Mezea

Legezkoa da domeketako batzarretan Mezea emotea. Mezeak emoten dautso batzarrari onen esanai betea, onen indar osoa. Jaunaren eguna, Jaunaren batzarra, Jaunaren Oparia: guzti orrek batasuna erazten dau. Jaunaren espirituaren eraz bizi izateko, Jaunaren eguna anai-arrebakaz ospatzeko bearrizana dau kristauak, Jaunaren aparitan batuta eskuarturik. Errakuntza aundia izango litzake, ba, domeketako batzarrari abade bagarik indarra emotea, Mezeak dauan garrantzia illundurik. Eukaristiako Oparian eskuartzea —jaunartzen dala—, **Mezatic kanpoko Jaunartzea baiño askozaz onurakorra da.**

Ori orrela izanik, kontzientzi-epaiak sortu daitekez; esate baterako: «Niretzat erraza da Mezea emoten dan elizara beribillez joatea; baiña nire auzunan elizarrak abade bagarik batzen dira. Nora joan bear ete-dot?...» Bakotxak bere barruari erantzun bear dautso, bere aal-izateai.

Edozelan be, ospakizunak ez dau Meza-aldatze bat izan bear. Eliz-batzarrean gaiok erabili bear dira: agurra, Jaungoikoaren Itza entzutea, Jaungoikoari erantzuna isillaldirén bidez, gorapena ta abestia, esker-emotea, eskari-otoitza, ezaugarrien ardurea; abadearen ordezkaritza. Baiña ez dira erabili bear Eukaristi-otoitzak, oneik abadeari soillik dagokioz-ta.

Elizarik ez abade bagarik


Ezin egin daiteke abadearena, edo bardin dana, abadeak Mezea emoterakoan egiten dauana. Abadea aurrean dagoanean, batzarra Jesukristo'ri begira dago benetan, abadea Kristo'ren ordezkari dago-ta.


Lagunarteak ezin egin aal izango dau iñoiz be abadearen eginkizuna, abadeak Kristo'gandik beronen eginkizuna ta aginpidea artu dau-ta. Bera dago Kristo'ren ordezkari Itza iragartean, Oparia egitean, Sakramentuak emotean, lagunartea zuzentzean. Orregaitik, abade bagarik be, domeketako batzarra ezin egon daiteke abadeagandik bananduta. **Ez dago Elizarik abade bagarik.** Edozein talde ez da, berez, Elizea. Eta ezin emon daitekeo bera abadeari, berak dau abade-bearrizana: abadea, **Jaungoikoak** gizonari emoten dautsen **doai** bat da, eta ez lagunarte baten ordezkaria.

Orregaitik, abadea ezin egon ba'daiteke be bere auzunako kristauak, oneik ez daitezala batu abadearen baimenaz izan ezik eta domeketako ospakizuna leenen aregaz gertatu bagarik.


Nortzuk egin zuzendari?

Zuzendari bat aukeratzea baiño obe da orretarako talde txiki bat aukeratu; eta talde orretakoak kristau-bizikera jatorra agertu dagiela. Bearrezkoa da, jakiña, talde ori, leenen, eginkizun orretarako egoki gertatzea.





OSPAKIZUNA



SARRERARAKO

(Kanpalaik jo)

Zuzendariak: Gurutze santuaren eginda gero, auxe diño:

— Aitareen eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Guztiak: — Amen.

Zuzendariak: — Jaungoiko gure Aitak eta Jesukristo gure Jaunak grazia ta bakea emon daiskuezala.

Guztiak: — Amen.

Zuzendariak: **Guztiak agurtzen ditu, urrengo eretarik bat aukeraturik:**

- a) Guztiok agurtzen zaituet gure abadearen izenean; ondo dakizuenez, berak esan daust ospakizun au zuzentzeko, bera ez dagoala.
- b) Gure abadea ez dogun ezkerro, eta berak dei eginda, Jaunaren Eguna ospatzeko batu gara emen.
- d) Geure abadearen izenean agurtzen zaituet guztiok, eta laster geugaz egoteko asmo bizia dauala agertu daust.
- e) Eliza onetarako abade barria izentatu arte, domeketako ospakizuna zuzentzeko eskatu daust gotzain jaunak, eta bere izenean guztiok agurtzeko be bai.

Sarrera-kantu bat abestu daiteke, ospakizun-aurrean egin ez ba'da. Oarpen idatzi bat be irakurri daiteke, ospakizunean sartzeko.

Zuzendariak: Orain, gure buruak pekatari autortu daiguzan, Jaunari auxe esanez:

- a) «Autortzen dautsat Jainko guztiz aaltsuari, eta zuei bere bai, nire senideoi,

pekatu egin dodala gogapen, itz eta egiñez,
eta egin-bearrak ez egiñez;

Bularra joaz:

bai, pekatari naz.

Eta jarraitu:

Orregaitik eskatzen dautset Andra Maria beti
[Birjiñari,

Aingeru ta Santu guztiai,
eta zuei bere bai, nire senideoi,
otoitz egin dagiozuela nire alde
Jainko gure Jaunari.

b) Edo beste au:

- Dei egin daiogun Jesukristo gure Jaunari, esanez
(edo abestuaz):
Erruki, Jauna. E./ Erruki, Jauna.
Kristo, erruki. E./ Kristo, erruki.
Erruki, Jauna. E./ Erruki, Jauna.

Eta olantxe amaitzen dau:

- Erruki dakigula Jainko guztiz aaltsua,
eta, gure pekatuak parkaturik,
eroan gaizala betiko bizitzara. E./Amén.

Zuzendariak: — Aintza zeruetan Jaungoikoari.

Guztiak: — Eta bakea lurrean Aren gogoko gizonai.
Ain aundi ta eder zaitugulako,
gora Zu, bedeinkatua Zu,
gorespen Zuri,
Jainko Jauna, zeruko Errege,
Jaungoiko Aita Guztiaalduna.
Jauna, Seme bakar, Jesukristo;
Jainko Jauna, Jainkoaren Bildots,
Aitaren Seme:
Zeuk kentzen dozu munduko pekatua,
erruki, Jauna.
Zeuk kentzen dozu munduko pekatua,
entzun gure deia.
Aitaren eskui-aldean jarririk zagoz Zu,
erruki, Jauna.
Zeu bakarrik Santua,

Zeu bakarrik Jauna,
Zeu bakarrik Goi-goikoa, Jesukristo.
Espiritu Santuarekin
Jainko Aitaren argitan.
Amen.

Zuzendariak: Urrengo otoitzetariko batz amaitzen dau:

- a) Zaindu, Jauna, maitasun etenbageaz zure etxeoak;
babestu ta jagon egizuz beti, euren itxaropena Zeu-
gan soillik jarri dabe-ta.
Jesukristo gure Jaunaren bitartez. E./Amen.
- b) Jaungoiko guztiaaldun eta betikoa,
emoiozu zure erriari,
zure irakaspén-ausnartzeak, itzez eta egiñez,
Zeuri atsegin yatzuna beteten
irakatsi dagiola.
Jesukristo gure Jaunaren bitartez. E./Amen.
- d) Gure Aita Jaungoikoa, emoiezu kristau guztiai
izen oni ez dagokiona baztatu
eta izen onek adierazoten dauana
bete dagiela.
Jesukristo gure Jaunaren bitartez. E./Amen.
- e) Gure Aita Jaungoikoa,
isuri gure biotzetara zure maitasuna:
edozetan eta gauza guztien gaiñetik
Zeu maite izanik,
edozein asmoren gaiñetik dagozan
zure agintzariak lortzea jadetsi dagigun.
Jesukristo gure Jaunaren bitartez. E./Amen.
- f) Jesukristo gure Jauna: zure Legea oso-osorik
Zeuganako ta lagun-urkoaganako maitasunean
jarri dozu;
eiguzu, zeure aginduak bete daiguzala,
orrela betiko bizitzara eldu gaitzezan.
Jesukristo gure Jaunaren bitartez. E./Amen.

(Abenduko domeketan)

- Gure Jainko Jauna: zure salbamena
lurreko azken-mugetaraiño jakiñerazo dozu;

eiguzu, zure Semearen Jaiotzaren aintza
pozez beterik itxaron dagigula.
Errege bizi da-ta gizaldien-gizaldietan. E./Amen.

(Garizumako domeketan)

— Biurtu gagizuz Zeugana,
gure Jaungoiko Salbatzaille orrek;
argitu gagizuz zure itzaren argiaz:
Garizuma au ospatzeak
gugan bere fruturik onenak emon dagizan.
Jesukristo gure Jaunaren bitartez. E./Amen.

(Pazko-aldiko domeketan)

— Apalik eskatzen dautsugu, gure Jainko Jaun orri:
Kristo biztuaren jaiak ospatzeak
salbatuak izan garanako Pazko-poza
geitu dagiala gugan.
Jesukristo gure Jaun berberaren bitartez. E./Amen.



ITZAREN LITURJIA

OARPEN BATZUK

- Irakurlea ez da ospakizuna zuzentzen dauana izan bear.
- Irakurleak aurretiaz gertatu bear ditu irakurgaiak.
- Oso egoki izango litzake, irakurgaien aurretik, oarpen labur bat irakurtea: a) entzuleen entzumenak biztuteko; b) irakurgaia bear danez ulertzeko; d) eguneko irakurgaien artean dagoan aria jakiñerazoteko.
- Ebanjelioa irakurten dauanak ez dau «Jauna zuekin» esango.
- Irakurgaiak atrilletik irakurriko dira.
- Pastoral-errazoirik ba'dago, irakurgai bakarra irakurri daiteke, leenengo edo bigarrena aukeraturik.
- Irakurgaietarako, Biblia erabili daiteke. Liburu onen Geigarrian be jarten doguz irakurgai aukerako batzuk.
- Aleluia, abestu ezik, ez da esaten.


BIBLIAKO IRAKURGAIK

(Bibliatik artuta naiz liburu onen Geigarrikoak).

IRAKURGAIEN OSTEAN

Ospakizuna zuzentzen dauanak, abadeak egindako Homilia irakurri daike. Edo-ta Homili-azalpenen bat irakurri, liburuetan argitaratuta dagozanetarik artuta.

Edozelan be, isillaldi-une bat egingo da.



FEDEA AUTORTZEA


Zuzendariak: — Sinisten dot Jaungoiko bat bakarra:

Guztiak: — Aita guztiz aaltsu, zeru-lurren Egille,
agiri diran eta ez diran guztiena.
Sinisten dot Jaun bat bakarra,
Jesukristo, Jainko Seme bakar,
mende guztiak baiño leen
Aitagandik sortua.
Jainkoagandik Jainko, argitik argi,
egiazko Jainkoagandik egiazko Jainko;
sortua, ez egiña;
Aitaren izate berekoa.
Aren bidez dira egiñak gauza guztiak.
Gu gizonokaitik eta gu salbatzeko
jatsi zan zerutik.

(Orain, «gizon egin zan» berbak arte, burua makurtzen da).

Eta Espiritu Santuaren egiñez,
Maria Birjiñagandik gorputz-arturik,
gizon egin zan.
Pontzio Pilato'ren menpean
gugaitik gurutzeratua izan zan,
oiñazetan illa eta obiratua.
Irugarren egunean biztu zan,
Liburu Santuak esan ebenez;
zerura igo
eta Aitaren eskui-aldean jarririk dago.
Aintzaz etorriko da barriz,
biziak eta illak epaitzera,
eta Aren Erregetzak
ez dau azkenik izango.
Sinisten dot Espiritu Santua,
Jaun eta bizi-emoillea,

Aitagandik eta Semeagandik dana;
 Aitarekin eta Semearekin batean
 agur eta gorespen berbera
 artzen dauana,
 eta Profeten agoz itz egin ebana.
 Sinisten dot Eliza:
 bat, santu, katoliku ta apostoluena.
 Autortzen dot Bateo bakarra,
 pekatuak parkatzeko.
 Itxaroten dot illen biztuera,
 eta datorren munduko bizitza. Amen.



JAINKO-ERRIAREN OTOITZA

Emen datozan eskarietarik bat erabili daiteke:

I

Geienetako eskari-eredua

Anai-arrebok: Dei egin daiogun Jainko Aitaren errukiari, geure alde eta batzar santu onetan ez dagozan guztien alde, eta otoitz egin dagigun andra-gizon guztien bearrizanen alde.

- Eguzki-sortzaldetik sartzaldera zabaldua dagoan Jaungoikoaren Eliza Santuaren alde: Jaunak batu, garbitu eta geitu dagian azken-aldiak arte.
Eskatu daiogun Jaunari. E./Entzun, Jauna, eskatzen dautsugu.
- Gure Aita Santu I...ren alde eta Eliza Santuaren Gotzain guztien alde: Jaungoikoak bere graziaz bete, argitu ta indartu dagizan.
Eskatu daiogun...
- Munduko bakearen alde: aundinaikeriak lotu, asarreak ezereztu eta andra-gizon guztien biotzetan maitasuna ta alkartasuna sortu daitezana.
Eskatu daiogun...
- Erbesteratuen alde, askatasun bagarik eta euren etxeetatik urrun dagozanen alde: une guztietan euren Jaungoikoaren etxeko lez artu dagiezan eta euren naibageetan poztasuna aurkitu dagien.
Eskatu daiogun...
- Emen Jaunagan batuta gagozan guztion alde: Jaungoikoak fedean irauteko eta beti alkar-maitasunean azteko indarra emon daiskun.
Eskatu daiogun...

Zaindu egizu zure esku indartsuaz, Jaungoiko on orrek,
zeure errukia eskatzen dauan erria:
bizitza onetan gozaldia ta pozgarria jadetsi dagizan
eta betiko poza lortu dagian.
Jesukristo gure Jaunaren bitartez.
E./Amen.

II

Santiago'ren liturjiatik artutako eskari-eredua

Eskatu daiogun, anai-arrebok, Jaungoiko gure Aitari, entzun dagiala bere izenean batuta dagoan erriaren otoitza.

- Kristau-erri guztiaren bakearen eta Eliza santuen batasunaren alde.
Eskatu daiogun Jaunari. E./Entzun, Jauna, eskatzen dautsugu.
- Geure parrokiaren eta Eliza katoliku ta apostolikuaren alde.
Eskatu daiogun...
- Euren etxeetatik urrun bizi diranen alde, lanik ez etxerik ez daukenen alde.
Eskatu daiogun...
- Beartsuen, zaarren, geisoen, erbesturatuen eta atzerritarren alde.
Eskatu daiogun...
- Birjintasunean eta ezkontza-bizitzan kristau zintzo lez bizi diranen alde, aita-amen eta euron seme-alaben alde.
Eskatu daiogun...
- Aulduta dagozan guztien alde, bidea galduta dagozanen alde, zapalduta dagozanen askatasunaren alde, gure ildakoen betiko atsedenen alde.
Eskatu daiogun...
- Jaungoikoaren aulkiaren aurrean gure otoitza entzuna izan daiten, Jaunaren erruki ugaria artu dagigun eta betiko erreñuaren duin izan gaitezan.
Eskatu daiogun...
- Emen aurrean dagozan anai-arreben alde, batzar onetara ezin etorri izan diranen alde eta gure otoitzak eskatu dabezanen alde.
Eskatu daiogun...

Errukiaren Jaungoikoa,
entzun egizu apaltasunez eta uste onez egin dautsugun otoitza;
eta, gure gurariak onartuak izan aal daitezana,
Zeuk nai dozuna gura izan dagigula egizu.
Jesukristo gure Jaunaren bitartez.
E./Amen.

III

Abendurako eskari-eredua

Abendu-aldi santu onetan, egin daioguzan, anai-arrebok, gure eska-riak Jaungoiko Aitari, bere salbamena bialtzen dautsugu-ta.

- Fededunen biotza iratzartu dagian eta bere Semearen etorrera alaitzurako gertatu dagizan.
Eskatu daiogun Jaunari. E./Entzun, Jauna, eskatzen dautsugu.
- Bakearen Erregearen etorrereak gorrotoak eta indarkeriak amatatu dagizan, erriai eurak bear daben aurrerapidea emon dagitsen, alargunak eta umezurtzak bere arduratasunaz zaindu dagizan.
Eskatu daiogun...
- Kristo'ren etorrerea guztiontzat bake, grazi ta poz-iturri izan daiten.
Eskatu daiogun...

Jaungoiko guztiaaldun eta betikoa;
Kristo gure Jaunari bidea gertatzeko agintzen dautsugu;
emoiguzu, zure errukiz,
gure fedea, itxaropena ta maitasuna geitzea,
Kristo biotz garbiz artu dagigun.
Jesukristo gure Jaunaren berberaren bitartez.
E./Amen.

IV

Garizumako eskari-eredua

Anai-arreba maiteok: Edozein alditan egin bear dogu otoitz; baiña Garizumako egun oneitan, ekiñago ta sutsuago egin bear dautsuguz

gure eskariak Jaungoiko gure Aitari, gure otoitza basamortuan gorputz-
-nekea egin eban Kristo'ren otoitzari alkarturik.

- Kristau-erri guztiaaren alde: aldi santu onetan, Jaungoikoaren Itza-
ren gose geiago izan dagian.
Eskatu daiogun Jaunari. E./Entzun, Jauna, eskatzen dautsugu.
- Lurreko erri guztien alde: bakean bizi daitezán, bear daben
aurrerapidea lortu dagien eta gure egunak grazi ta salbamen-
-egunak izan daitezán.
Eskatu daiogun...
- Pekatarien eta ardurabageen alde: grazi-aldi onetan Jaungoikoa-
gan biurtu daitezán.
Eskatu daiogun...
- Geure alde: Jaunak gure barruan gure pekatuen egiazko damua
biztu dagian.
Eskatu daiogun...

Egizu, Jaungoiko guztiaaldun orrek,
zure erria Zugana biotz-biotzez biurtu daitela,
zure ontasunagandik apal-apalik eskatzen dautsuna
jadetsi dagian.
Jesukristo gure Jaunaren bitartez.
E./Amen.

V

Pazko-aldiko eskari-eredua

Gurutzean illaz gure eriotza ondatu eta, barrero biztuaz, bizia bar-
riritu dauan zeruko Erregeari eskatu daiogun, anai-arrebok, bere Eli-
zearen otoitza entzun dagiala.


- Munduaren Salbatzailleak Elizea gaitz guztitik atara dagian, bere
gurutzeaz eta biztuereaz erosi eban-eta.
Eskatu daiogun Jaunari. E./Entzun, Jauna, eskatzen dautsugu.
- Kristo'ren bakea errialde guztietara zabaldu daiten eta andra-
-gizon guztiak bake orretan eskuartu dagien.
Eskatu daiogun...
- Jesukristo Jaunak bere erreñuan gogora ekarri dagizan bear-
tsuak eta atsekabetuak, geisoak eta il-zorian dagozanak eta edo-


zein neke-miñetan bizi diranak.
Eskatu daiogun...

- Munduaren Salbatzailleak gaitz guztitik atara gagizan, bere guru-
tzeaz eta biztuereaz erosi genduzan ezkerero.
Eskatu daiogun...

Zeure biztuera goragarriaz poztuten gaituzun Jesukristo Jauna:
entzun biotz onez zure erriaren otoitza,
eta, Zuri deika dagozan guztiak,
gogo onez gura dabena jadetsi dagiela egizu.
Errege bizi zara-ta gizaldien gizaldietan.
E./Amen.

**Beste eskari batzuk be gertatu daitezke, eguneko irakurgaiak au-
rrean izanik, edo aldi aretako gora-beerak eta bearrizanak gogora eka-
rririk. Fededunen Otoitzaren ostean, abesti bat abestu daiteke.**





JAUNARTZERAKO

I

**Kandela bi iziotzen dira.
Mai-altara gaiñean zapi txikia (korporala) zabaltzen da.**

ESKERRAK EMOTEKO ESKARIA

Zuzendariak urrengo eskarietarik bat aukeratzen dau.

Zuzendariak: — Zeuri, Jesus Jaun orri, egiten dautsugu gure eskaria.
Zeuri gorapena, bedeinkapena, eskerrak emotea.

Guztiak: — ZEURI GORAPENA, BEDEINKAPENA, ESKERRAK
EMOTEA.

Zuzendariak: — Aitaren Seme bakarra zara Zu.

Guztiak: — ZEURI GORAPENA, BEDEINKAPENA, ESKERRAK
EMOTEA.

Zuzendariak: — Zuk, gu onik atarateko, gizon egin zintzazan, Maria
Birjiñaren sabelean sorturik.

Guztiak: — ZEURI GORAPENA, BEDEINKAPENA, ESKERRAK
EMOTEA.

Zuzendariak: — Zuk, eriotzaren kateak ausita, fededunai Betiko Errei-
ña edegi zeutsen.

Guztiak: — ZEURI GORAPENA, BEDEINKAPENA, ESKERRAK
EMOTEA.

Zuzendariak: — Zu, Aitaren eskumaldean jarrita, zeruko Errege zara.

Guztiak: — ZEURI GORAPENA, BEDEINKAPENA, ESKERRAK
EMOTEA.

Zuzendariak: — Danaren eta guztien Ebazle ta Jauna lez berrito eto-
rriko zarala sinisten dogu.

- Guztiak:** — ZEURI GORAPENA, BEDEINKAPENA, ESKERRAK EMOTEA.
- Zuzendariak:** — Zatoz, Jauna, zure zintzoai laguntza ekartera, zure odol ederraz erosi zenduzan-eta.
- Guztiak:** — ZEURI GORAPENA, BEDEINKAPENA, ESKERRAK EMOTEA.
- Zuzendariak:** — Egizu, betiko aintzan, zeure santuakaz batu gaitetzala.
- Guztiak:** — ZEURI GORAPENA, BEDEINKAPENA, ESKERRAK EMOTEA.

II

- Zuzendariak:** — Eskerrak emoten dautsuguz, Jaungoiko gure Aita orri, Bizi-ogia dan Jesukristo zure Semearen bitartez. Aintza Zeuri gizaldien-gizaldietan.
- Guztiak:** — AINTZA ZEURI GIZALDIEN-GIZALDIETAN.
- Zuzendariak:** — Zuk guztiontzat janari-edariak atondu dauskuzuz eta guri orain Espiritu-Janaria —Kristo'ren Gorputza— gertatu dauskuzu, betiko bizitza emoten dauskun Gorputza.
- Guztiak:** — AINTZA ZEURI GIZALDIEN-GIZALDIETAN.
- Zuzendariak:** — Guk artu bear dogun Eukaristiako Ogia garau askoaz oraatua izan danez, geu be, zeure Elizea egiten dogunok, lurreko bazter batetik bestera fedearen eta maitasunaren bidez zeure Erreñuan izan gaitetzala batuak.
- Guztiak:** — AINTZA ZEURI GIZALDIEN-GIZALDIETAN.
- Zuzendariak:** — Eskerrak Zeuri, Jaungoiko gure Aita, Jesukristo zure Semearen bitartez, danaren, datorrenaren eta etorriko danaren bitartez.
- Guztiak:** — AINTZA ZEURI GIZALDIEN-GIZALDIETAN.

III

- Zuzendariak:** — BEDEINKATUA ZEU, JAUNA, BETI TA BETI.
- Guztiak:** — BEDEINKATUA ZEU, JAUNA, BETI TA BETI.
- Zuzendariak:** — Zuk egindako guztia geure eskuetan itzi dozulako, guk itxaroten dogun lur barrian Zeugaz batera lan egin dagigun.
- Guztiak:** — BEDEINKATUA ZEU, JAUNA, BETI TA BETI.
- Zuzendariak:** — Obeak izatera dei egiten gaituzulako Beronen bitartez betiko bizitza bete-betean jadetsi dagigun.
- Guztiak:** — BEDEINKATUA ZEU, JAUNA, GIZALDIEN-GIZALDIETAN.
- Zuzendariak:** — Zeure Elizearen batasunean batu gaituzulako, Zuk agintzaritzat emoten dauskuzun Izadi Barriari argi egiten jardun dagigun.
- Guztiak:** — BEDEINKATUA ZEU, JAUNA, BETI TA BETI.
- Zuzendariak:** — Apalik eskatzen dautsugu, Jauna.
- Guztiak:** — APALIK ESKATZEN DAUTSUGU, JAUNA.
- Zuzendariak:** — Gauza guztiak zeure naiari dagokionez erabilten jakin dagigun.
- Guztiak:** — APALIK ESKATZEN DAUTSUGU, JAUNA.
- Zuzendariak:** — Zeure seme-alaba garan ezkerro, alkarri begirunea izaten, alkar ondo eroaten eta maite izaten jakin dagigun.
- Guztiak:** — APALIK ESKATZEN DAUTSUGU, JAUNA.
- Zuzendariak:** — Zeure asmoai dagokienez, gizarte zuzenagoan anai-arreba lez lan egiten jakin dagigun.
- Guztiak:** — APALIK ESKATZEN DAUTSUGU, JAUNA.

IV

- Zuzendariak:** — ESKERRAK ZEURI, JAUNGOIKO GURE AITA ORRI.
- Guztiak:** — ESKERRAK ZEURI, JAUNGOIKO GURE AITA ORRI.
- Zuzendariak:** — Espiritu Santuaren egiñez,
geure aragiz jantzita,
Jesukristo zure Semea
bialdu dauskuzulako:
gure begiak Beronegan ezarririk,
Zeu ikusi aal zagiguzan.
- Guztiak:** — ESKERRAK ZEURI, JAUNGOIKO GURE AITA ORRI.
- Zuzendariak:** — Espiritu Santuak zuzenduta,
guztai on egiten igaro zalako:
gatxez zapalduta egozanak osaturik
eta beartsuai Barri Ona iragarririk,
Jesukristo!, Gizon Barria;
guk, A eredu dogula,
Aren lorratzai jarraitu dagiegun.
- Guztiak:** — ESKERRAK ZEURI, JAUNGOIKO GURE AITA ORRI.
- Zuzendariak:** — Gugaitik eriotzara emonda,
Espirituaren indarrez
Zuk barrero biztu
eta danaren eta guztien Jaun egin dozulako,
betiko Beragaz bizi aal gaitezana.
- Guztiak:** — ESKERRAK ZEURI, JAUNGOIKO GURE AITA ORRI.
- Zuzendariak:** — Gure lagun-urko guztiakan
zeure aurpegia ezagutu aal dagigula.
- Guztiak:** — APALIK ESKATZEN DAUTSUGU, JAUNA.
- Zuzendariak:** — Zu errukior zaranez,
geu be errukiorrak izan gaitezala.
- Guztiak:** — APALIK ESKATZEN DAUTSUGU, JAUNA.
- Zuzendariak:** — Munduaren argi izaten ikasi dagigula,
itxaropenez bizi izanik.
- Guztiak:** — APALIK ESKATZEN DAUTSUGU, JAUNA.

V

- Zuzendariak:** — Zeuri, gure Aita orri,
Jesukristo zure Semearen bitartez,
Espiritu Santuagaz batean,
gorapena, aintza ta eskerrak emotea.
AINTZA AITARI TA SEMEARI TA ESPIRITU SAN-
TUARI.
- Guztiak:** — AINTZA AITARI TA SEMEARI TA ESPIRITU SAN-
TUARI.
- Zuzendariak:** — Emon dauskuzuzan gauza guztiakaitik
eta gizonagan jarri dozuzan
espiritu ta asmamenagaitik.
- Guztiak:** — AINTZA AITARI TA SEMEARI TA ESPIRITU SAN-
TUARI.
- Zuzendariak:** — Lurra oparotzen dozun ur eta eguzkiagaitik
eta geure eskuak eratutako
makiña ta tresnakaitik.
- Guztiak:** — AINTZA AITARI TA SEMEARI TA ESPIRITU SAN-
TUARI.
- Zuzendariak:** — Lurrean sartzen eta erneten dan aziagaitik
eta ataraten eta atontzen doguzan menastakaitik.
- Guztiak:** — AINTZA AITARI TA SEMEARI TA ESPIRITU SAN-
TUARI.
- Zuzendariak:** — Lur emokorragaitik
eta gizonaren lanagaitik.
- Guztiak:** — AINTZA AITARI TA SEMEARI TA ESPIRITU SAN-
TUARI.
- Zuzendariak:** — Gure etxekoen maitasunagaitik
eta adiskidetasun eta gizarte-alkartasunagaitik.
- Guztiak:** — AINTZA AITARI TA SEMEARI TA ESPIRITU SAN-
TUARI.
- Zuzendariak:** — Gu zeure antzekoak izatea nai dozulako:
santu, bikain, erukiorrak,
Jesukristo zure Semea eredu dogula.
- Guztiak:** — AINTZA AITARI TA SEMEARI TA ESPIRITU SAN-
TUARI.

- Zuzendariak:** — Gure naibage-atsegiñak
gure utsegite ta ondoren onak,
zeure Seme Jesukristo'gan,
Gurutzean josiagan eta barriro Biztuagan
ulertu daitekezalako.
- Guztiak:** — AINTZA AITARI TA SEMEARI TA ESPIRITU SAN-
TUARI.
- Zuzendariak:** — Jesukristo zure Semearen bitartez,
izadi osoa
zeru barrien eta lur barriaren itxaropenaz
miñez antzika dagoalako.
- Guztiak:** — AINTZA AITARI TA SEMEARI TA ESPIRITU SAN-
TUARI.

VI

- Zuzendariak:** — Jesus Jauna:
Zeu zara gure illunaldiak
ezerezten dauzan argia.
ZEURI GORAPENA, BEDEINKAPENA TA ESKERRAK.
- Guztiak:** — ZEURI GORAPENA, BEDEINKAPENA TA ESKERRAK.
- Zuzendariak:** — Zeu zara gure utsegitea
ondatzen dauan Egia.
- Guztiak:** — ZEURI GORAPENA, BEDEINKAPENA TA ESKERRAK.
- Zuzendariak:** — Zeu zara gure oinkadak
zuzentzen dauzan Bidea.
- Guztiak:** — ZEURI GORAPENA, BEDEINKAPENA TA ESKERRAK.
- Zuzendariak:** — Zeu zara gure gosea
aseten dauan Ogia.
- Guztiak:** — ZEURI GORAPENA, BEDEINKAPENA TA ESKERRAK.
- Zuzendariak:** — Zeu zara gure egarria
kentzen dauan Ur bizia.
- Guztiak:** — ZEURI GORAPENA, BEDEINKAPENA TA ESKERRAK.
- Zuzendariak:** — Zeu zara gure gatxak.
osatzen dauzan Osasuna.

- Guztiak:** — ZEURI GORAPENA, BEDEINKAPENA TA ESKERRAK.
- Zuzendariak:** — Zeu zara gure eriotza
azpiratzen dauan Bizitza.
- Guztiak:** — ZEURI GORAPENA, BEDEINKAPENA TA ESKERRAK.
- Zuzendariak:** — Zeu zara gure biziari
erantzuten dautsan Biztuerea.
- Guztiak:** — ZEURI GORAPENA, BEDEINKAPENA TA ESKERRAK.

GURE AITA

- Zuzendariak:** — Gure Eskaria, Kristo'k Berak irakatsi euskun otoitzaz
amaitzen dogu.
- Guztiak:** — Gure Aita, zeruetan zarana:
santu izan bedi zure Izena,
etor bedi zure erreñua,
egin bedi zure naia
zeruan bezela lurrean bere.
Emoiguzu gaur
egun onetako ogia;
parkatu gure zorrak,
geuk bere gure zordunai
parkatzen dautsegun ezkerro;
eta ez gu tentaldira eroan,
baiña atara gagizuz gatxetik.

JAUNARTZEA

- Zuzendariak:** **Sagrariotik kopoa ekarri eta mai-altara gaiñean ipinten
dau. Kopoa zabaldu baiña leen, urrengo berbok esan
daiketz:**
- Orain, geure abadeak egin eban azkenengo Mezako
Oparian sagaratutako Ogia artuko dogu. Berak eska-
tu daust, gotzain jaunaren baimenaz, Jauna artu nai
dozuenoi emoteko.

**Kopoa zabaldurik, belaun batz belaunikotuta gero, Ogi
sagaratu bat artu eta guztiai erakusten dautse, esanez:**

— Ona emen Jaungoikoaren Bildotsa:
ona munduko pekatua kentzen dauana.
Zorionsuak Onen maira deituak!

Guztiak:

— Jauna, ni ez naz iñor
Zu neure etxean sartzeko;
baiña esaizu itz bat
eta osatuko naz.

Jaunartzen dabenak, zuzendariaren eskutik artu bear dabe, eskuan naiz miñean.

Zuzendariak: Jauna emotean, auxe esango dau:

— Kristo'ren Gorputza.

Guztiak:

— Amen.

Jaunartze-bitartean edo Jaunartze-ostean, abesti bat abestu daiteke. Jaunartze-ostean, abestu ezik, une bazuetan isillaldia egingo da.

Zuzendariak: Guztiak zutik, urrengo otoitzetariko bat esango dau:

— Isuri egizu, Jauna, gure gaiñera
zure maitasun-espirtua;
Ogi beraz janarituta,
maitasun berean alkartuta iraun dagigun.
Jesukristo gure Jaunaren bitartez. E./ Amen.

— Gure Jainko Jauna:
Sakramentu onetan
Kristo bera artu dogu;
Aren antzeko biurto gaitetzala eiguzu,
Aren aintzaren erdikide izatea
merezi dagigun.
Jesukristo gure Jaunaren bitartez. E./Amen.

— Zeure Itzaz, Jauna,
eta Eukaristiako Ogi
janaritzen gaituzu;
Kristo'gaz alkartuta irauteko indarra
emon egiguzu.
Errege bizi da-ta gizaldien-gizaldietan. A./Amen

— Gure Jainko Jauna:
giza-bizitzan eten bagarik
barrizten garanez,

egizu, gure espirtua zaartzen dauan pekatua
bertan-beera itzirik,
orain zeure graziaren bidez
barriztu gaitetzala.
Jesukristo gure Jaunaren bitartez. E./Amen.

(Abenduko domeketan).

— Artu dogun Eukaristiaz,
sendotu egizu, Jauna, gure espirtua;
gure egitada onakaz aberastuta,
laster datorren Kristo'ri
urten aal gakiogan,
eta egunen baten Aren eskuetatik
saritzat betiko atsegiñak
artu aal dagiguzan.
Jesukristo gure Jaunaren berberaren bitartez.
E./Amen.

(Garizumako domeketan).

— Gure Jainko Jauna:
Eukaristiako Ogiak
sinismena janaritu,
itxaropena sendotu
eta maitasuna indartzen dau;
egizu, egiazko Ogi bizi dan
Kristo'ren gose izan
eta beti Aren agotik urtendako
edozein berbaz bizi gaitetzala.
Jesukristo gure Jaunaren berberaren bitartez.
E./Amen.

(Pazko-aldiko domeketan).

— Apalik eskatzen dautsugu, gure Jainko Jauna:
Jesukristo zure Semearen Pazko-gomutapena dan
Sakramentuan eskuartzeak,
persona barri egin gagizala.
Jesukristo gure Jaunaren berberaren bitartez.
E./Amen.

AZKEN-AGURRA

Zuzendariak: Oarren bat egin bear ba'dau, oraintxe egin.
Diru-batzerik egitekotan, urteeran egingo dala esan daike.


Gero, «Aitaren» egiñik, auxe diño:

— Bedeinkatu ta gorde gagizala Jaungoiko guztiaal-
dunak,
Aitak, eta Semeak, eta Espiritu Santuak.

Guztiak: — Amen.

Zuzendariak: — Goazan Jaunaren bakean.


Guztiak: — Eskerrak Jaungoikoari.



GEIGARRIA

IRAKURGAIAK

- Abendua
- Garizuma
- Pazko-aldia
- Geienetakoa



ABENDUA

LEENENGO IRAKURGAIA

I

Jaungoikoak, etorririk, onik atarako gaitu

Bibliako Isaias igarlearen liburutik artuta. (35, 1-6a. 10).

Basamortu ta leku legorrek poztu egingo dira;
bazarleku legorra pozez alaitu ta lilia lez loratuko da.

Lorez jantzi ta poztuko dira;
zantzoz eta kantuz.

Libano baizen zoragarri biurtuko dira,
Karmelo ta Saron baizen eder,
Jaunaren aintza
eta gure Jaungoikoaren edertasuna ikustean.
Indartu esku makalak,
sendotu koloka dagozan belaunak.

Esan egiezue biotz artegatuai:
«Gora biotzak! Ez bildurtu!

Begira: zuen Jaungoikoa zigorraz dator;
or ikusiko dozue Aren ordaiña.

Berbera dator;
Berak salbatuko zaitue».

Orduan, itsuen begiak argitu egingo dira,
eta gorren belarriak zabaldu.

Orduan, errena basauntza baizen arin ibiliko da,
eta mutuaren miiñak alai abestuko dau,
eta Jaunak erositakoak barrero etorriko dira.

Sion'en sartuko dira, pozaren pozez zantzoka,
eta betiko poza izango dabe aurpegietan.

Pozez eta atsegiñez beteko dira,
eta miñak eta negarrak iges egingo dabe arekandik.

II

Jaunak zuen barrua sendotu dagiala, Jesus barriro etorri daitenerako

San Paulo Apostoluak Tesalonika'koai egindako leenengo idazkitik artuta. (3, 12-4, 2).

Anai-arrebok:

Jaunak alkarganako ta guztiakanako maitasuna
geitu ta ugaritu dagitzuela,
zuekanako geurea ugari danez:
zuen biotzak sendotu daitezaz
eta onbidean gure Jaungoiko ta Aitarean aurrean
orban bagarik agertu zaitezaz,
Jesus gure Jauna bere santu guztiakaz
etorri daitenean.

Azkenez, anaiok, ba-dakizue, geuk irakatsita,
Jaungoikoaren gogoko izateko bidea:
bide orretan ibili zaiteze;
baiña, Jesus Jaunaren izenean,
aurrerago jotera egin dagizueta
eskatzen dautsuegu ta dirautsuegu burubidez.

Ba-dakizue Jesus Jaunaren izenean
emon geutsuezan aginduak.

SALMUA

I

Sal. 145, 7. 8-9a. 9bc-10.

Z/. Zatoz, Jauna, gu salbatzera.

E/. Zatoz, Jauna, gu salbatzera.

Z/. Jaunak beti eusten dautso bere zintzotasunari,
zapalduai zuzentasuna egiten dautse,
gosetuai ogia emoten dautse.

Jaunak katiguai askatasuna emoten dautse. (E/.)
Itsuari begiak Jaunak argitzen dautsaz,
makurtu-zorian dagozanak Jaunak ipinten dauz zuzen,
maite dauz Jaunak zintzoak,
Jaunak gordeten dauz bidez doazanak. (E/.)
Jaunak janaritzen dauz umezurtza ta alarguna
eta gaiztoen bidea naastu egiten dau.
Jauna errege da beti,
zure Jainkoa, Sion, gizaldien-gizaldietan. (E/.)

II

Sal. 121, 1-2, 3-4a (4b-5. 6-7). 8-9.

Z/. Bai poztu nintzala ni,
«Jaunaren etxera goaz» esan eustenean!

E/. Bai poztu nintzala ni,
«Jaunaren etxera goaz» esan eustenean!

Z/. Bai poztu nintzala ni,
«Jaunaren etxera goaz» esan eustenean!

Eldu dira nire oiñak
zure ataurrera, Jerusalem. (E/.)

Jerusalem lodi ta batuta egindako
uria lez dago jaso.

Araxe igoten dira jatorri-taldeak,
Jaunaren jatorri-taldeak. (E/.)

Israel'go oiturea danez,
Jaunaren izena ospatzera.

Antxe dagoz Israel'go auzi-maiak
Dabid'en jauregian. (E/.)

Opa egiozue bakea Jerusalem'i:
«Nasai bizi bediz zu maite zaituenak,

izan bedi bakea zure arresien barrukaldean,
nasaitasuna zure jauregietan». (E/.)

Nire anai ta lagunuen alde
auxe diñot: «Bakea zugaz».

Gure Jainko Jaunaren etxeagaitik,
ondasun betea opa dautsut. (E/.)

ALELUIA TA SALMU-KANTA EBANJELIO-AURRETIK

I

Sal. 84, 8

Erakutsi eiguzu, Jauna, zure errukia,
eta emon zure salbamena.

II

Lk. 3, 4. 6

Atondu egizue Jaunaren bidea,
zabaldu egizuez Aren bide-zidorrak.
Gizaki guztiak ikusiko dabe Jaungoikoaren salbamena.

III

Lk. 1, 38

Ni Jaungoikoaren mirabea naz.
Egin daistala Berak zeuk diñozunez.

EBANJELIOA

I

Iratzarririk egon zaitetze, etxeko jauna noiz etorriko
dan ez dakizue-ta

Jesukristo'ren Ebanjelioa Markos'en liburutik (13, 33-37).

Aldi aretan, Jesus'ek bere ikasleai auxe esan eutsen:

—Iratzarririk egon zaitetze, unea noiz elduko dan ez dakizue-ta.

Joanaldi bat egitera doan gizonaren antzera: etxetik urten baiño
leen, bere gauzak bere morroia izten dautsez, bakotxari bere egin-
bearra emonik, eta atezaiñari ondo zaindu dagiala agintzen dautso.

Iratzarririk egon, ba, zuek be, etxeko jauna noiz elduko dan ez
dakizue-ta: illuntzean, ala gaberdian, ala goizaldean, ala goizean. Ez
zagiezala lotan aurkitu, bat-batean etorriaren be!

Eta zuei dirautsuedan au, guztiai dirautset: Zoli egon!

II

Zeu zara etortekoa, ala beste baten zain egon bear dogu?

Jesukristo'ren Ebanjelioa Mateo'ren liburutik (11, 2-11).

Aldi aretan, Joan (*Bateatzailleak*), espetxean egoala, Kristo'ren egin-
tzak entzun ebazan, eta bere ikasle batzuk bialdu eutsazan, Ari itaun
au egitera:

—Zeu zara etortekoa, ala beste baten zain egon bear dogu?
Jesus'ek auxe erantzun eutsen:

—Zoaze barriro Joan'egana eta esan egiozue ikusten eta entzuten
diarduzuena:

itsuak ikusi egiten dabe, errenak ba-dabiz,
legenardunak garbi geratzen dira euren geisotik,
gorrak entzun egiten dabe,
illak biztu egiten dira
eta beartsuai salbamen-mandatua iragarten yake.
Eta zorionekoak, nigan galbiderik artzen ez dabenak!

Joan'en mandatariak joan ziranean, Jesus laguntaldeari Joan'i bu-
ruz berba egiten asi yaken. Auxe iñoan:

—Basamortuan Joan ikustera urten zintzazenean, zer uste zenduen
aurkitzea? Aizeak darabillen kaiñaberen bat? Apain-apain jantzitako
gizonen bat uste zenduen aurkitzea? Dotore ta apain jazten diranak
errege-jauregietan bizi dira! Zer uste zenduen aurkitzea, bestela?
Profeten bat? Bai, ba, benetan dirautsuet: profeta baiño geiago be bai.
Joan'i buruz diñoie Liburu Santuak urrengo au:

«Neure mandataria bialtzen dot zure aurretik,
bidea atondu dagitzun».

Benetan dirautsuet: ez dago Joan baiño gizon aundiagorik; alan be,
Jaungoikoaren erreñuan txikiena, a baiño aundiagoa da.

III

Nor naz ni, baiña, nire Jaunaren ama ikustaldia egitera etorri dakidan?

Jesukristo'ren Ebanjelioa Lukas'en liburutik (1, 39-45).


Aldi aretan, Maria, bidea arturik eta aal izan eban ariñen, Juda'ko mendi-aldeko erri batera joan zan; Zakarias bizi zan an. Maria'k, aren etxean sarturik, Elisabet agurtu eban.

Elisabet'ek Maria'ren agurra entzun ebanean, bere sabelean eroian seiña (*umetxoa*) pozez saltoka asi zan. Elisabet Espiritu Santuz betetik geratu zan, eta poz-deadarka auxe esan eban:

—Beste edozein emakume baiño geiago bedeinkatu zaitu Jaungoikoak, eta zure sabelean dagoan semea be bedeinkatu dau!

Nor naz ni, baiña, nire Jaunaren ama ikustaldia egitera etorri dakidan? Izan be, zure agurra entzunda batera, seiña pozez saltoka asi da nire sabelean.

Zorionekoa zu, Jaunak egin dautsuzan agintzariak beteko dauzala sinistu dozulako!



GARIZUMA

LEENENGO IRAKURGAIA

I

Emoiguzu ura, edateko

Bibliako urteera izeneko liburutik artuta (17, 3-7).

Egun areitan, erria egarri zan, eta Moises'en aurka mormoxetan asi zan:

—Zegaitik atara gaituzu Ejipto'tik, gu eta gure seme-alabak eta gure abereak egarriz ilteko?

Moises'ek Jaunari dei egin eta auxe esan eutsan:

—Zer egin bear dautsat erri oni? Laster arrika egingo dauste. Jaunak Moises'i auxe erantzun eutsan:

—Jarri zaitetz erriaren aurrean, eta eroan egizuz zugaz Israel'go zaar batzuk, artu eskuan Nilo-ibaia joteko erabili zenduan makillea be, eta zoaz. Ni zeure aurrean egongo naz, Oreb-mendiko aitz-gaiñean; zuk atxa jo, eta ura sortuko da andik, erriak edan dagian.

Moises'ek alantxe egin eban, Israel'go zaarren aurrean.

Toki ari izena «Tentaldi-tokia» ezarri eutsan, israeldarrak an Jaunaren aurka asarratu eta Jauna zirikatzen jardun ebelako, esanez: «Jauna geure artean ete-dago, bai ala ez?».

II

Alkartasun barri bat egingo dot eta ez dot pekatua gogoan izango

Bibliako Jeremias Igarlearen liburutik artuta (31, 31-34)

Begira: ba-datoz egunak —diño Jaunak—,

eta Israel'go etxeagaz eta Juda'ko etxeagaz
alkartasun barri bat egingo dot.

Arein gurasoakaz egin neban alkartasuna lakoa ez,
Ejipto'tik atarateko eskutik artu nebazanean:
orduan, ausi egin eben nire alkartasuna,
ni arein Jauna nintzanarren be —diño Jaunak—.

Auxe izango da Israel'go etxeagaz egingo dodan alkartasuna
egun arein ostean —diño Jaunak—:

Nire legea buruan sartuko dautset
eta biotzetan ezarriko;

Neu izango naz arein Jainkoa
eta areik neure erri.

Iñok ez dau irakatsi-bearrik izango,
ez anaiari, ez lagun-urkoari, esanez:

«Ezagutu egizu Jauna».

Izan be, txiki ta aundi,
guztiak ezagutuko nabe —diño Jaunak—,
arein gaiztakeriak parkatu dagidazanean
eta arein pekatuetaz aaztu naitenean.

III

Kutxa aren eredu dan urak ataraten zaitue onik bateoan

San Pedro Apostoluak egindako leenengo idazkitik artuta (3, 18-22)

Anai-arreba maiteok:

Kristo bein il zan pekatuakaitik: zintzoa zintzo ez garanokaitik, gu
Jaungoikoari eroateko; aragi-eraz, eriotzara emona, baiña Espiritu-eraz
barriro biztua.

Une onetan giltzapean egozan espirituai iragartera joan zan, beifio-
la sinisgogor ziranai, Noe'ren egunetan Jaungoikoaren eroapena zain
egon yakenean, Noe'k Kutxea gertatzen eban artean: Kutxa aretan la-
gun gutxi, zortzi, urten ziran onik uraren bidez.

Orain be, Kutxa aren eredu dan urak ataraten zaitue onik bateoan:
ez aragi-loiak garbiturik, Jesukristo'ren Biztueraren bidez Jaungoikoa-
ri barru garbia eskaturik baiño. Jesukristo, zerura igo ta Aingeru, Agin-

tari ta Indardunak Aren menpera etorrita gero, Jaungoikoaren esku-
maldean dago.

IV

Kristo'k aldatu egingo gaitu, bere gorputz goragarriaren antzeko egiñik

San Paulo Apostoluak Filipos'koai egindako idazkitik artuta (3, 17-4, 1)

Anai-arrebok:

Izan zaitzeze neure antzeko, eta begiratu gudan dozuen ikasbidetik
dabizanak.

Izan be, asko dira or —eta orrei buruz sarritan esan dautsuedana
orain be negarrez dirautsuet— Kristo'ren gurutzearen aurka diarduenak:
orrelakoen azken-mugea ondamendia da;
sabela dabe Jaungoiko;
arein gorapena, lotzakizuna.

Biotza lurreko gauzetan jarrita dauke.

Gu, ostera, zeruko bizilagunak gara, eta andixek etorriko dan Jesu-
kristo gure Salbatzaille ta Jaunaren zain gagoz.

Dana bere menpean ezita daukan eskubidez, gure gorputz doillor
au aldatu ta bere gorputz goragarriaren antzeko biurtuko dau.

Beraz, ene anai oso maite ta kutunok, neure pozbide ta koroï zaree-
nok, iraun egizue sendo Jaunagan, guztiz laztanok.

SALMUA

I

Sal. 94, 1-2, 6-7, 8-9

Z/. Zeure abotsa entzungo dogu, Jauna.

E/. Zeure abotsa entzungo dogu, Jauna.

Z./ Etorri zaitzeze, goratu dagigun Jauna,

txalo egin daiogun gu onik ataraten gaituan Arkatxari;
sartu gaitzezan Aren aurrera eskerrak emonez,
ospatu dagigun soiñu-otsez. (E.)

Sartu zaiteze, auspazu gaitazan,
gure Egille dan Jauna bedeinkatuz.
Gure Jainkoa Bera da-ta;
gu, barriz, Aren erria,
Berak zaintzen dauan artaldea. (E/.)

Entzungo al dozue gaur Aren berbots au!
«Ez egizue gogortu biotza Meriba'n lez,
Masa'ko egunean basamortuan lez:
an, nire egintzak ikusi izanarren be,
zuen gurasoak arakatu ta zirikatu egin nenduen». (E/.)

II

Sal. 50, 3-4, 12-13, 14-15, 18-19

Z/. Egin nigan, Jainko, biotz garbi bat.
E/. Egin nigan, Jainko, biotz garbi bat.

Z/. Erruki zakidaz, ene Jainko, zure ontasunagaitik,
garbitu nire barrua zure erruki aundiagaitik.
Kendu zearo nire dongakeria,
garbitu nire pekatua. (E/.)

Egin nigan, Jainko, biotz garbi bat,
barriztu nire barruan gogo sendo bat;
ez nagizu jaurti zure aurpegitik urrun,
ez egidazu kendu zure arnasa santua. (E/.)

Biurtu egidazu zure osasun-poza,
sendotu nagizu zintzotasun-arnasaz.
Gaiztoai zeure bideak erakutsiko dautsedaz,
pekatariak Zeugana biurtuko dira. (E/.)

Ez dozu oparirik atsegiñez ikusten;
erre-oparirik eskiñi ba'negizu be,
ez zeukean onartuko.
Nire oparia espiritu damutua da;
biotz damutua ta apala ez dozu baztartzan Zuk. (E/.)

III

Sal. 22, 1-3a. 3b-4, 5-6

Z/. Jauna da nire artzain, ez dot ezeren bearrik.

E/. Jauna da nire artzain, ez dot ezeren bearrik.
Z/. Jauna de nire artzain,
ez dot ezeren bearrik:
bedar bizia dagoan zelaietan etzun-azoten nau;
iturri geldietaruntz naroa
eta bizkortu egiten dauz nire indarrak (E/.)

Bide zuzenetik naroa,
bere izenaren maitasunarren.
Ibar illunetan zear joanarren be,
ez dot bildurrik izango, Zu neugaz zoaz-ta:
zure zigorrak eta artzain-makilleak baretu egiten nabe. (E/.)

Mai bat atontzen dozu nire aurrean
nire arerioen aurka;
orioz igurtziten daustazu burua,
eta gaiñezka dago nire edontzia. (E/.)
Zeure ontasunak eta errukiak egiten dauste lagun
nire bizitzako egun guztietan;
eta Jaunaren etxea izango da nire bititokia
amaibagako urteetan. (E/.)

IV

Sal. 26, 1, 7-8a. 8b-9abd, 13-14

Z/. Jauna da nire argi ta osasun.
E/. Jauna da nire argi ta osasun.

Z/. Jauna da nire argi ta osasun,
nori nik bildurrik?
Jauna da nire biziaren laguntza,
nok ikaratu ni (E/.)

Entzun, Jauna, dei egiten dautsut-eta;
erruki zakidaz, erantzun egidazu.
Auxe entzuten dot nire biotzean:
«Billatu egizue nire aurpegia». (E/.)

Bai, Jauna, zeure aurpegi-billa ibiliko naz,
ez gorde niri zure aurpegia.
Ez baztartu asarrez zure morroi au,
nire laguntza Zeu zara-ta. (E/.)

Jaunaren poza izango dodala uste dot
bizidunen errian.
Izan ustea Jaunagan; izan adoretsua,
izan kemena, jarri Jaunagan zure ustea. (E/.)

SALMU-KANTA EBANJELIO-AURRETIK

I

Mt. 5 4b

Gizona ez da ogi utsez bizi,
Jaungoikoaren agotik urtendako edozein Berbaz baiño.

II

Mt. 4, 17

Onbideratu zaitzeze —diño Jaunak—,
Jaungoikoaren Erreñua urr dago-ta.

III

Lk. 15, 18

Neure aitagana biurtuko naz,
eta auxe esango dautsat:
«Aita, pekatu egin dot Jaungoikoaren eta zure aurka».

IV

Jn. 8, 12b

Neu naz munduaren argia —diño Jaunak—;
niri jarraitzen daustanak bizi-argia eukiko dau.

EBANJELIOA

I

Jesus'ek barau egiten dau berrogei egunez eta berrogei
gabez eta deabruak zirikatu egiten dau

Jesukristo'ren Ebanjelioa Mateo'ren liburutik (4, 1-11)

Aldi aretan, Espiritu *Santuak* Jesus basamortura eroan eban, deabruak zirikatu egian. Jesus'ek berrogei egunez eta berrogei gabez barau egin eban, eta azkenean gose izan zan.

Orduan, deabruak, Aregana urreraturik, auxe esan eutsan:

—Benetan Jaungoikoaren Semea ba'zara, esan egizu arri oneik ogi biurtu daitezala.

Jesus'ek auxe erantzun eutsan:

—Liburu Santuak auxe diño: Gizona ez da ogi utsez bizi izango, Jaungoikoaren agotik urtendako edozein berbaz baiño.

Gero, deabruak uri santura eroan eta jauretxeko gaillurrera jaso eban, eta auxe esan eutsan:

—Benetan Jaungoikoaren Semea ba'zara, jaurti egizu zure burua goitik beera, Liburu Santuak auxe diño-ta: Zaindu ta euren eskuetan artu zagiezala aginduko dautse Jaungoikoak bere aingeruai, zure oiñak arriren baten tope egin ez dagian.

Jesus'ek auxe erantzun eutsan:

—Liburu Santuak auxe be ba-diño: Ez dozu zure Jainko Jauna zirikatuko.

Barrero be deabruak mendi garai-garai batera eroan eban, eta, munduko naziño guztiak eta arein edertasuna erakutsirik, auxe esan eutsan:

—Guzti au emongo dautsut nik, nire aurrean belaunikotzen ba'zara eta gurtzen ba'nozu.

Baiña Jesus'ek auxe erantzun eutsan:

—Alde emendik, Satanas!, Liburu Santuak auxe diño-ta: Zeure Jainko Jauna gurtuko dozu, eta Berari bakarrik emongo dautsazu gurtza.

Orduan, deabruak Jesus'egandik alde egin eban, eta otseintzen etorri yakozan aingeruak.

II

Onbideratzen ez ba'zaree, zuek guztiok be il egingo zaree

Jesukristo'ren Ebanjelioa Lukas'en liburutik (13. 1-9)

Une aretan, norbaitzuek, Jesus'egana aurkeztuta, galilearrena aita-tu eutsoen: areik oparia eskintzen ebela, Pilato'k illerazo egin ebazan, olan euren odola ildako abereenaz naasturik. Jesus'ek auxe esan eban:

—Galilear orreik orrēlako ezbearra izan ebelako, beste guztiak baiño pekatariagoak zirala uste dozue? Nik ezetz dirautsuet, ba. Eta auxe esango dot gaiñera: onbideratzen ez ba'zaree, zuek guztiok be il egingo zaree. Ala, Siloe'ko torrea jaustean il ziran amazortzi areik, Jerusalem'go gaiñetiko bizilagunak baiño errudunagoak zirala uste dozue? Nik ezetz dirautsuet, ba. Eta auxe esango dot gaiñera: onbideratzen ez ba'zaree, zuek guztiok be il egingo zaree.

Orduan, Jesus'ek ipuin au esan eutsen:

—Gizon batek bere maastian piko-arbola bat sartu izan eban; baiña, piko-billa joan yakonean, ez eutsan bat bera be aurkitu. Orduan, maastizaiñari auxe esan eutsan:

—Ba-dira iru urte piko-arbola onetara piko-billa natorrela, eta iñoiz be ez daukaz. Ebagi egizu, ba, lurra alperrik artu ez dagian.

Baiña maastizaiñak auxe erantzun eutsan:

—Jauna, itzi egizu urtebete geiago. Inguruan lurra atxurtu eta on-garria botako dautsat. Gero fruitua ekartea izan daiteke; eta, fruturik ez ba'dakar, orduantxe ebagi.

III

Mundua Jesukristo'ren bidez salbatu daiten bialdu eban Jaungoikoak bere Semea

Jesukristo'ren Ebanjelioa Joan'en liburutik (3. 14-21)

Aldi aretan, Jesus'ek Nikodemo'ri auxe esan eutsan:

—Moises'ek basamortuan brontzezko sugea gora jaso ebanez, bearezkoa da Gizasemea be *gurutzean* gora jasoa izatea, Aregan sinistu dagian edonok betiko bizia izan dagian.

Jaungoikoak mundua bere Seme bakarra emoteraifño izan dau maite, Beronegan sinistu dagian iñortxo be galdu ez daiten, betiko bizitza izan dagian baiño.

Izan be, Jaungoikoak bere Semea ez dau munduaren aurka ondapen-epaia emoteko bialdu, Beronen bidez mundua salbatu daiten baiño.

Semeagan sinisten dauana, ez da galdua izango; Aregan sinisten ez dauana, ostera, galduta dago, Jaungoikoaren Seme bakarragan ez dau sinistu-ta.

Ondapen onen auzia onetantxe dago: argia mundura etorri zala, eta gizonak argia baiño illunpeak maiteago izan ebezala, munduaren joka-bidea gaiztoa zan-eta.

Izan be, gaiztakeria egiten daben guztiak, argiari gorroto dautsoe eta onelakoak ez doaz argitara, euren jokabide gaiztoa agirian geratu ez daiten.

Egiari dagokionez diardenak, ostera, argia billatzen dabe, euren egi-tada guztiak argitzen dauzana Jaungoikoa dala agertu daiten argi ta garbi.

IV

Zuetarikoren bat pekatu bagarik egon daitenak, jaurti dagiola leenengo arria

Jesukristo'ren Ebanjelioa Joan'en liburutik (Jn. 8. 1-11)

Aldi aretan, Jesus Oriomendi'ra joan zan. Goizean-goiz, jauretxera joan zan barriro, eta laguntalde guztia Aren inguruan batu zan. Jesarri eta irakasten asi yaken.

Orduan, Lege-irakasleak eta pariseuak ezkontza austen aurkitu izan eben emakume bategaz aurkeztu ziran. Guztien aurrean jarri eben eta Jesus'i gai au agertu eutsoen:

—Irakasle, emakume au ezkontza urratzen aurkitu dogu agiri-agirian. Onelako emakumeak arrika ilteko agintzen yaku Moises'en legean. Zer diñozu zuk?

Gaia, zirikatzeke asmotan agertu izan eutsoen, zerbaitetan salatu aal izateko.

Jesus, makurturik, atzamarraz lurrean idazten asi zan.

Areik itaunka ekiten outsoela ikusirik, Jesus'ek, zutundurik, auxe esan eutsen:

—Zuetarikoren bat pekatu bagarik egon daitenak, jaurti dagiola leenengo arria.

Ori esanda, barriro makurturik, lurrean idazten jarraitu eban.

Jesus'en berbak entzutean, banan-banan alde egiñez yoiazan, zaarrenetarik asirik.

Jesus bakar-bakarrik geratu zan, emakumea an erdian egoala.

Jesus'ek, zutundurik, auxe itandu eutsan:

—Andra, non dagoz guzti orreik? Areitariko batek be ez dau izan zu galtzeko aurpegirik?

—Iñok be ez, Jauna —erantzun eutsan emakumeak.

Eta Jesus'ek ari:

—Neuk be ez zaitut galtzen. Zoaz, eta ez egin pekatu rik aurrerantzean.



PAZKO-ALDIA

LEENENGO IRAKURGAIA

I

Jaungoikoak Jaun eta Mesias egin dau

Apostoluen Egiñak izeneko liburutik artuta. (2 14a. 36-41)

Pentekoste-egunean, Pedro'k, Amaikakaz batera zutundurik, abotsa jaso eta auxe esan eutsen:

—Israel'go etxe guztiak jakin begie benetan, zuek gurutzean josi dozuen Jesus, Jaungoikoak Jauna eta Mesias egin dauana.

Itzaldi au entzunda, biotzez garbatu ziran, eta Pedro'ri ta beste Apostolui,

—Anaiok —esan eutseen—, zer egin bear dogu?

Eta Pedro'k auxe erantzun eutsen:

—Garbatu zaitze, eta artu begi bateoa zuetariko bakotxak zuen pekatuen parkamenerako Jesukristo'ren izenean; eta Espiritu Santuaren doaia artuko dozue. Agintzari au, zeuentzat eta zeuen seme-alabentzat eta Jaungoiko gure Jaunak dei egin egienen urruneko guztientzat da-ta.

Beste berba askoaz be autor egiten eban, eta burubide au egiten eutsen:

—Alde egizue gizaldi oker onetatik.

Eta esan ebana benetan artu ebenak, bateatuak izan ziran; eta egun aretan iru millaren bat lagun geitu yakezan.

II

Fededun guztiak bat ziran, eta guztia alkarrentzat euken

Apostoluen Egiñak izeneko liburutik artuta (2, 42-47)

Anaiak apostoluen irakatsian, bizi-alkartasunean, ogia zatitzean eta otoitzetan arduratsu irauten eben.

Apostoluak Jerusalem'en mirari ta arrigarri asko egiten ebezan-eta, guztiak bildurrak artu ebazan. Fededun guztiak, barriz, bat ziran, eta guztia alkarrentzat eben. Eta ogasunak saldurik, ordaiña guztien artean banatzen eben, bakotxaren bearrizanari egokionez. Eta egun oro gogo batez Jauretxera joaten ziran; eta, etxeetan ogia zatiturik, alaitsu ta gogo bakunez batera jaten eben, Jaungoikoa goraturik eta erriaren ederra irabazirik. Eta salbatuak izan bear ziranak, Jaunak egunean-egunean ugaritzen ebazan.

III

Apostoluen Egiñak izeneko liburutik artuta (1. 1-11)

Leen be, ene Teofilo, Jesus'ek asierarik egin eta irakatsi ebanari buruz egin neban berba, Berak aukeratutako Apostoluai Espiritu Santuaren bidez aginduak emonda, zerura jasoan izan zan egunerarte. Bere nekaldi-ostean be, Bere burua bizirik argibide askoz erakutsi eutsen, berrogei egunez arei agertuez eta Jaungoikoaren erreinuari buruz berba egiñez.

Eta azkenez, arekaz jaten ziarduala, Jerusalem'dik ez urteteko agindu eutsen, Aitaren agintzariaren zain egoteko baiño: «Agintzari au —esan eutsen—, neure agotik entzun dozue. Izan be, Joan'ek uraz bateatu eban; zuek, barriz, egun asko baiño leen, Espiritu Santuz izango zaree bateatuak».

Batuta egozanak itaun au egin eutsoen:

—Jauna, aldi onetan barriztuko al'dozu Israel'go erreinua?

Eta Jesus'ek auxe esan eutsen:

—Ez dagokizue Aitak bere aginpidcan daukazan sasoiak eta uneak igartea. Baiña zuen gaiñera etorriko dan Espiritu Santuaren indarra artuko dozue, eta Jerusalem'en, Judea osoan, Samaria'n eta lurraren bazterreraiño be, neure autorle (*testigu*) izango zaree.

Ori esanda, arein begien aurrean gorantz igoten asi zan, eta odei batek arein begietatik ostendu egin eban. Bera zerurantz yoian artean, eurak Ari begira-begira egozala, gizon bi soiñeko zuriz jantzita urreratu yakezan, eta auxe esan eutseen:

—Galilear gizonok!, zetan diarduzue zerura begira? Zerura eroan izan yatzuen Jesus ori berori zerura joaten ikusi dozuenez etorriko da.

IV

Sinismena artu zenduenean, Espiritu Santua artu al'zenden?

Apostoluen Egiñak izeneko liburutik artuta (19, 1-8)

Egun areitan, Apolo Korinto'n egoala, goi-aldeko bazterrak aztertuta gero, Efeso'ra eldu zan; eta, ikasle batzuk an aurkiturik, auxe esan eutsen:

—Sinismena artu zenduenean, Espiritu Santua artu al'zenden?

—Espiritu Santua danik be ez dogu entzun —erantzun eutsoen areik.

Eta Paulo'k arei:

—Zein bateo artu dozue, ba?

Eta areik:

—Joan'en bateoa.

Orduan, Paulo'k auxe esan eutsen:

—Joan'ek damu-bateoaz bateatu eban, etorteko zan Jesus'egan sinistu egiela erriari esanaz.

Ori entzunda, Jesus Jaunaren izenean bateoa artu eben. Eta Paulo'k eskuak gaiñean ezarten eutsezala, Espiritu Santua arein gaiñera jatsi zan, eta berbeta arrotzez berba egiten eta profeta egiten asi ziran. Amabiren bat gizonetzko ziran guztiz.

Gero, Paulo'k, sinagogan sarturik, bildur bagarik berba egiten eban iru illabetez, Jaungoikoaren Erreinuari buruz arei argia emoten.

V

Kristo'ren Odol bikaiñaz izan zaree erosiak

San Pedro Apostoluaren leenengo idazkitik artuta (1, 17-21)

Anai-arreba maiteok:

Bakotxak egindakoen negurritz, norkeri bagarik, ebazten dauan Ari, Aita esaten ba'dautsazue,

erbeste onetako aldi guztian bildurrez bizi zaitze,

Zuen gurasoakandik artutako ekandu alperretatik ezer ustelkorrez, ez zidarrez erosiak izan ez zareena ba-dakizue-ta, Kristo'ren odol bikaiñaz erosiak baiño.

Auxe da bildots garbi ta loi bagarikoa,

lurra lur izan baiño leen ezagutua

eta azken-aldiotan zeuekaitik agertu dana.

Bere bidez sinisten dozue zuek Jaungoikoagan;

eta Onek biztu ta goratu egin dau illen artetik,

zuen sinismena ta itxaropena Jaungoikoagan izan daitezcan.

VI

Aintza ta gorapena artzeko gai da illa izan dan Bildotsa

San Joan'en Agerpena izeneko liburutik artuta (5, 11-14)

Nik, Joan nazan onek, begiratu eta aingeru askoren berbotsa entzun
[neban:

millaka ta millaka ta milloeka ta milloeka ziran,
aulki ta bizidun eta aguren inguruan batuta,
eta auxe iñoen deadarka:

«Indarra, aberastasuna, jakituria,
aal-izatea, dedua, aintza ta gorapena artzeko gai da
illa izan dan Bildotsa».

Eta zeruan, lurgaiñean, lurpean eta itsasoan diran guztiai,
auxe entzun neutsen erantzuten:

«Aulkian jesarrita dagoanari ta Bildotsari
gorapena, dedua, aintza ta nagusitza gizaldiz-gizaldi.

Eta lau bizidunak, «Amen» erantzun eben.

Eta agurak, auspaz, gurtu egin eben
gizaldiz-gizaldi bizi dana.

SALMU-KANTA

I

Sal. 117, 2-4. 13-15. 22-24

Z/. Emon egiozuez eskerrak Jaunari, ona da-ta,
Aren errukia beti-betikoa da-ta.
(edo Aleluia).

E/. Emon egiozuez eskerrak Jaunari, ona da-ta,
Aren errukia beti-betikoa da-ta.

Z/. Esan begi Israel'en etxeak:
betikoa da Aren errukia.
Esan begi Aaron'en etxeak:
betikoa da Aren errukia.
Esan begie Jaunaren zintzoak:
betikoa da Aren errukia. (E/.)

Bultza ta bultza egiten eusten ni lurrera botateko,
baiña Jaunak lagun egin eustan;

Jauna da nire indarra ta adorea,
Bera da nire osasuna.

Entzun egizue: garaipen-abestiak dira
zintzoen txaboletan (E/.)

Etzegilleak baztartutako arria
orain giltzarri da.

Jauna da ori egin dauana,
mirari argia da.

Jaunak egin eban eguna da au:
izan bedi gure poza ta gure atsegiña. (E/.)

II

Sal. 29, 2 eta 4. 5 eta 6. 11 eta 12a eta 13b.

Z/. Goratu egingo zaitut, Jauna, onik atara nozu-ta
(edo Aleluia).

E/. Goratu egingo zaitut, Jauna, onik atara nozu-ta.

Z/. Goratu egingo zaitut, Jauna, onik atara nozu-ta,
ez dautsezu itzi nire arerioai
nire lepotik barre egiten-eta.

Jauna, Zeuk atara zenduan nire arimea lezatic,
illobira jatsiten nintzala biztu nenduzun barriro. (E/.)

Jo soñua Jaunarentzat, Beronen zintzook,
emon eskerrak Aren izen santuari;
Aren asarrea une batekoa da,
eta Aren ontasuna bizi guztikoa. (E/.)

Entzun, Jauna, eta erruki zakidaz;
izan zakidaz laguntza, Jauna.

Nire negarra dantza biurtu zenduan.
Jauna, ene Jainko, beti emongo dautsudaz eskerrak! (E/.)

III

Z/. Oiu-artean igoten da Jainkoa,
Jauna turuta-otsez.
(edo Aleluia).

E/. Oiu-artean igoten da Jainkoa,
Jauna turuta-otsez.
Jo txaloak, erri guztiok;
goratu Jainkoa poz-deadarka!
Jauna garaitsu ta ikaragarria da-ta,
lur osoan Errege aundi. (E/.)

Oiu-artean igoten da Jainkoa,
Jauna turuta-otsez;
jo Jainkoarentzat, jo eresiak,
jo gure Erregearentzat, jo eresiak! (E/.)
Jainkoa lur osoaren errege da:
jo eresiak ganoraz!
Errege da Jainkoa atzerrietan,
Jainkoa bere errege-aulki santuan jesarten da. (E/.)

IV

Sal. 97, 1-3b. 3de-4

Z/. Jaunak bere zuzentasuna agertzen dautse atzerriai.
(edo Aleluia).

E/. Jaunak bere zuzentasuna agertzen dautse atzerriai.

Z/. Abestu egiozue Jaunari kanta barri bat,
miragarriak egin dauz-ta:
bere eskumeak emon dautso garaipena,
bere esku santuak. (E/.)

Jaunak bere garaipena jakiñerazoten dau,
bere zuzentasuna agertzen dautse atzerriai:
Israel'en etxearen alde izan ebazan errukia ta zintzotasuna
ekarri ebazan gogora. (E/.)

Ikusi dabe lurreko mugak
gure Jainkoaren garaipena.
Goratu Jauna, lur guzti orrek,
egin deadar, jo txaloak, jo eresiak. (E/.)

V

Sal. 65, 1-3a. 4-5. 6-7a. 16 eta 20.

Z/. Goratu Jauna, lur guzti orrek.
(edo Aleluia).

E/. Goratu Jauna, lur guzti orrek.

Z/. Goratu Jauna, lur guzti orrek;
jo soiñua Aren izenaren omenez;
abestu ereserkiak Aren izenari;
esan Jainkoari: «Zure lanak bai arrigarriak!» (E/.)

Auspaztu bedi zure aurrean lur osoa,
jo dagiela soiñua zure omenez,
jo dagiela zure izenarentzat.

Etorri Jaunaren lanak ikustera,
gizakien alde egin dauzan lan bildurgarriak. (E/.)

Itsasoa legor biurtu eban,
ibaitik oiñez igaro ziran.

Poztu gaitezcan Jainkoagan,
bere aal-izatez nagusitza dauko betiko-ta. (E/.)

Etorri entzutera, Jainkoaren zintzook;
neure alde egin dauana azalduko dautsuet.

Bedeinkatua Jainkoa, nire eskaria ez eban bazturtu-ta. (E/.)

VI

Sal. 96, 1 eta 2b. 6 eta 7d. 9

Z/. Jauna da errege lur guztian. (edo Aleluia).

E/. Jauna da errege lur guztian.

Z/. Jauna da errege, lurra pozetan,
ugarte guztiak pozez beterik.
Zuzentasunak eta Bidezko danak
eusten dautsoe Aren aulkiari. (E/.)

Zeruak Aren zuzentasuna iragarten dau,
eta erri guztiak ikusten dabe Aren aintza.
Aren aurrean auspazten dira jainko guztiak. (E/.)

Zu, Jauna, erri guztien gaiñean
gorengoa zara,
jainko guztien gaiñetik zagozana. (E/.)

ALELUIA TA SALMU-KANTA EBANJELIOAREN AURRETIK

I

Ko 1.^o, 5, 7b-8a

Kristo gure Pazko-bildotsa
oparitzat il da.
Egin dagigun, ba, jai.

II

Lk. 24, 32

Jesus Jauna: azaldu egiguzuz Liburu Santuak.
Iziotu egizu gure biotza Zuk berba egiten dauskuzun artean.

III

Jn. 14, 5

Neu naz bidea, egia ta bizitza
—diño Jaunak—.
Ezin eldu daiteke iñor Aitaganañño
neure bitartez izan ezik.

IV

Jn. 14, 23

Benetan maite nauanak,
nire mandatuan sendo iraungo dau
—diño Jaunak—,
eta nire Aitak maite izango dau alakoa,
eta nire Aita ta ni etorri egingo gakioz.

V

Jn. 15, 4. 5b

Iraun egizue nigan bat eginda, nik zuekan lez
—diño Jaunak—.
Nigan bat eginda irauten dauanak,
frutua ugari dakar.

VI

Jn. 14, 18

Ez zaituet bertan-beera itziko:
zeuekaz egotera etorriko naz barriro.

EBANJELIOA

I

Zortzi egun geroago, Jesus eldu zan

Jesukristo'ren Ebanjelioa Joan'en liburutik (20, 19-31)

Domeka aretan bertan, arratsalde-beranduan, ikasleak etxe baten
batuta egozan, judarrakanako biudurrez ateari ondo itxita eukezala.
Jesus'ek, arein erdian aurkezturik,

—Bakea zuekaz —esan eutsen.

Eta eskuak eta saietsa erakutsi eutsezan. Ikañleak, Jesus ikustean,
pozez bete ziran. Jesus'ek barriro be,

—Bakea zuekaz —esan eutsen. Eta beste au gaiñera:

—Aitak ni bialdu nenduanez bialtzen zaituet neuk be.

Arein gaiñera arnasea eginda, auxe esan eutsen:

—Artu egizue Espiritu Santua. Zuek pekatuak parkatu dagiezueza-
nai, parkatuta geratuko yakez; zuek pekatuak parkatu ez dagiezueza-
nai, parkatu bagarik geratuko yakez.

Tomas, amabietariko bat, «Bikotxa» eritzoena, ez egoan arekaz Je-
sus agertu yakenean. Geroago,

—Jauna ikusi dogu —esan eutsoen beste ikasleak.

Tomas'ek auxe erantzun eutsen:

—Aren eskuetan untzeen ezaugarria ikusten ez ba'dot, eta nire atza-
marra untzeak egindako ezaugarrian sartzen ez ba'dot eta nire eskua
saietseko zaurian, ez dot sinistuko.

Zortzi egun geroago, ikasle guztiak etxean batuta egozan, eta To-
maz be bai arekaz. Ateak ondo itxita eukezanarren, Jesus'ek, an er-
dian aurkezturik,

—Bakea zuekaz —esan eutsen.

Gero, Tomas'i auxe esan eutsan:

—Ekarri ona zure atzamarra eta begiratu nire eskuak; ekarri zure eskua eta sartu nire saitsean. Eta ez zaitetz sinisgogor izan, sinismendun baiño.

—Neure Jaun eta Jaungoikoa! —erantzun eutsan Tomas'ek.

Eta Jesus'ek ari:

—Ikusi nozulako sinisten dozu? Zorionekoak ikusi bagarik sinistu dagienak!

Beste mirari asko egin ebazan Jesus'ek bere ikasleen aurrean, liburu onetan aitatzen ez diranak. Mirari oneik, Jesus, Mesias, Jaungoikoaren Semea dala sinistu dagizuen izan dira idatziak, eta, sinisturik, Aregan betiko bizia izan dagizuen.

II

Idatzita egoan Mesias il eta irugarren egunean biztu egingo zala

Jesukristo'ren Ebanjelioa Lukas'en liburutik (24, 35-48)

Aldi aretan, ikasleak eurai jazo izan yakena esan eben, eta ogia zatitzean ezagutu izan ebela Jesus.

Jazotakoak esaten ziarduela, Jesus'ek, arein erdian jarririk, auxe esan eutsen:

—Bakea zuekaz!

Larri ta ikaratuta, mamuren bat ikusten ebela uste eben; baiña Jesus'ek auxe esan eutsen:

—Zegaitik ikaratzen zaree eta zegaitik sortzen dira zuen biotzean ezbaioak? Begira nire esku-oiñak: neu naz. Ikutu ta ikusi nagizue. Ma muak ez dauko aragirik, ez azurrik; eta ikusten dozue nik ba-daukadazana.

Ori esatean, eskuak eta oiñak erakutsi eutsezan. Baiña, pozez beterik egozaren be, arrituta egozan eta sinistu be ez eben egiten. Orregaitik, Jesus'ek auxe itandu eutsen:

—Ba-daukazue emen jatekorik?

Areik arrain-erre zati bat eskiñi eutsoen; Jesus'ek artu eta guztien aurrean jan eban. Gero, auxe esan eutsen:

—Oraindiño zuekaz nengoala, Moises'en legean, profeten liburuan eta Salmuetan nitzaz idatzita egoan guztia betebearra zala esan neutsuen.

Orduan, adimena argitu eta argiro ulerterazo eutsen Liburu Santuen esanaia. Eta auxe be esan eutsen:

—Idatzita egoan Mesias il eta irugarren egunean biztu egingo zala; eta Aren izenean erri guztiai, Jerusalem'dik asita, onbideratze-mandatu eta pekatuen parkamena iragarri bear yakela. Zeuek zaree gauza guztion testigu.

III

Artzain onak ardien alde bere bizia emoten dau

Jesukristo'ren Ebanjelioa Joan'en liburutik (10, 11-18).

Aldi aretan, Jesus'ek pariseuai auxe esan eutsen:

—Neu naz artzain ona. Artzain onak ardien alde bere bizia emoten dau; morroiak, ostera, ez, egiazko artzain eta ardien jabe ez da-ta; eta orregaitik, morroiak otsoa etorten ikusten dauanean, ardiak bertan-beera itzita, iges egiten dau, otsoari ardi batzuk ondatzen eta beste batzuk sakabanatzen itzirik. Izan be, morroiak lan-saria baiño ez dau barri; ez dau ardien ardurarik.

Neu naz artzain ona. Aitak ni ezagutzen nauanez eta nik Aita ezagutzen dodanez, olantxe ezagutzen dodaz nik nire ardiak eta areik be ezagutzen nabe ni. Eta nire ardien alde bizia emoten dot.

Arditegi onetan ez dagozan beste ardi batzuk be ba-dodaz; orreik be erakarri egin bear dodaz, nire abotsa ezagutu dagien. Orduan, artalde bakarra izango da, artzain bakarraren zainpean.

Neure bizia emoten dodalako be maite nau Aitak, bizia barriro artuko dodanarren be. Iñok be ez dau niri bizia kentzeko aalmenik; neuk emoten dot neure gogoz. Bizia emoteko aalmena dot, baita barriro kentzeko be; eta auxe da nire Aitaren aginduz bete bear dodan egitekoa.

IV

Agindu barri bat emoten dautsuet: alkar maite dagizuela

Jesukristo'ren Ebanjelioa Joan'en liburutik (13, 31-33a. 34-35)

—Oraintxe agertuko da Gizasemearen aintza, eta Jaungoikoa goratua izango da Aregan. Eta Jaungoikoa Aregan goratua izango ba'da, Jaungoikoak be Gizasemea goratu egingo dau; eta oso laster goratu be.

Ene semeok: onezkero ez naz zuekaz luzaro egongo.

Agindu barri bat emoten dautsuet: Alkar maite egizue; nik maite izan zaituedanez, zeuk be alkar maite egizue. Orretantxe ezagutuko dabe guztiak neure ikasle zareena: alkar maite izatean.

V

Egiaren Espirituak zuzenduko zaitue egia osoa ulertu dagizuen

Jesukristo'ren Ebanjelioa Joan'en liburutik (16, 12-15)

Aldi aretan, Jesus'ek bere ikasleai auxe esan eutsen:

—Gai geiago be esan bear izango neuskizue, baiña orain ezin ulertu zeikeez. Egiaren Espiritua etorri daitenean, Berak zuzenduko zaitue egia osoa ulertu dagizuen. Ez dau bere buruz berba egingo; entzun dauana soillik esango dau eta jazoko diranak iragarriko dautsuez.

Berak goratuko nau ni: adierazo dagitzuen guztia neugandik artuko dau-ta.

Aitak daukan guztia, neurea be ba-da; orrexegaitik esan dautsuet «Espirituak adierazo dagitzuen guztia, neugandik artuko dauala».

VI

Aita, goratu egizu zure Semea

Jesukristo'ren Ebanjelioa Joan'en liburutik (17, 1-11a)

Aldi aretan, Jesus'ek, begiak zerura jasorik, auxe esan eban:

—Aita, eldu da ordua.

Goratu egizu zure Semea,
zure Semeak be Zeu goratu zagizan.

Gizon guztien gaiñeko aginpidea emon zeutsan;
Berak orain betiko bizitza emon dagitsela
Zuk emon dautsazuzan guztiai.

Eta auxe da betiko bizitza:

ezagutu zagiezala Zu egiazko Jaungoiko bakar lez,
baita Jesukristo be zure bialdua lez.

Nik zeure aintza agertu dot emen, mundu onetan,
egiteko emon zeustan lana buruturik.

Orain, ba, Aita, goratu nagizu zure aurrean,
mundua izan baiño leen Zeugaz batera neukan aintzaz.
Egin dodaz aalegiñiak, neure ardurapean izteko
mundutik atara zenduzan areik Zu ezagutu zengiezan.

Zeureak ziran; Zeuk emon zeustazan,
eta zure mandatuari esana egin dautsoe.


Ulertu dabe orain, Zuk emon zeustan guztia zeurea dana,
baita onartu be Zuk emon zeustan irakatsi au.


Orain ziur be ziur dakie ni Zeugandik natorrena
eta sinistu dabe Zeu zarana bialdu nozuna.
Euron alde erregutzen dot.

Ez dautsut munduarenak diranen alde erregutzen,
Zeuk emon zeustazuzanon alde baiño, zeureak dira-ta.

Nire guztia zeurea da, eta zure guztia neurea,
eta eurokan egiten dau dizdiz nire aintzak.

Onezkero, ni ez naz munduan egongo;
oneik, barriz, munduan geratzen dira,
eta ni Zeugana noa.





GEIENETAKOA

LENENGO IRAKURGAIA

I

Berba egin, Jauna, zure serbitzari onek entzuten diardu-ta

Bibliako Samuel'en leenengo liburutik artuta (3, 3b-10. 19)

Egun areitan, Samuel lotan egoan, Jaunaren Kutxea egoan Jauretxean. Jaunak dei egin eutsan, eta,

—Emen nago —erantzun eutsan Samuel'ek; eta arin-arin Eli'gana joanda,

—Emen nozu —esan eutsan—, dei egin daustazu-ta.

—Ez dautsut nik deirik egin —erantzun eutsan Eli'k—; zoaz barriri lotara.

Samuel lotara joan zan barriri.

Jaunak barriri be dei egin eutsan.

Samuel'ek, jagi ta Eli'gana joanda,

—Emen nozu —esan eutsan—, dei egin daustazu-ta.

—Ez dautsut nik deirik egin —erantzun eutsan Eli'k—; zoaz barriri be lotara.

Samuel'ek ez eban oraindiño Jauna ezagutzen, Jaunaren itza ez yakon arteetan agertu-ta.

Jaunak dei egin eutsan irugarren aldiz. Samuel'ek, jagi ta Eli'gana joanda,

—Emen nozu —esan eutsan—, dei egin daustazu-ta.

Orduantxe konturatu zan Eli, Jauna zala umeari dei egiten eutsana, eta,

—Zoaz —esan eutsan Samuel'i—, eta lo egizu. Eta norbaitek dei egiten ba'dautsu, auxe esan egizu: «Berba egin, Jauna, zure serbitzari onek entzuten diardu-ta».

Samuel joan eta bere lekuan etzun zan. Jaunak, aurkezturik, bestetan lez egin eutsan dei:

—Samuel, Samuel!

—Berba egizu, Jauna, zure serbitzari onek entzuten diardu-ta. Samuel azi egiten zan, eta Jauna aregaz egoan; eta Jaunaren berbetariko bat bera be ez zan bete bagarik geratu.

II

Zure erdian erri apala ta beartsua itziko dot

Bibliako Sofonias igarlearen liburutik artuta (2, 3; 3, 12-13)

Zuek, lurreko apalok, billatu egizue Jauna;
Aren aginduak beteten dozuezan guztiok,
billatu egizue zuzentasuna,
billatu apaltasuna;
orrela, bearbada, gordelekua izango dozue
Jaunaren asarre-egunean.
Zure barruan erri apala ta beartsua itziko dot,
eta bere ustea Jaunaren izenean jarriko dau.
Israel'go ondarrak ez dabe gaiztakeririk egingo,
ez guzurrik esango;
arein agotan ez da miin maltzurrik izango;
larran jateko eta atsedean artzeko aukera izango dabe,
eta ez ditu iñok izutuko.

III

Eliseo'k, jagirik, Elias'i jarraitu eutsan

Bibliako Erregeen leenengo liburutik artuta (19, 16b. 19-21)

Egun areitan, Jaunak Elias'i auxe esan eutsan:
—Gantzutu egizu Eliseo, Abel-Mejola'koa, Sapat'en semea, zure ordeko profetatzat.
Elias'ek andik alde egin eta Sapat'en seme Eliseo goldatzen aurkitu eban, amabi idi-buztarri aurrean ebazala, eta berea amabigarrena. Elias'ek, Eliseo'ren ondolik igarorik, bere soingaiñekoa bota eutsan gaiñera.
Orduan, Eliseo'k, idiak bertan-beera itziririk, Elias'en atzean arin joanda, auxe esan eutsan:
—Itzi egidazu nire gurasoai agur egiten, eta berealaxe jarraituko dautsut.

—Zoaz —erantzun eutsan Elias'ek—, baiña etorri zaitetz barriro; nok galerazoten dautsu?

Eliseo atzera biurtu zan, eta, idi-parea arturik, il egin ebazan; gero, idien buztarriaz okelea erre, eta bere laguntaldeari emon eutsan jaten. Gero, jagirik, Elias'i jarraitu eutsan, eta onen serbitzari egin zan.

IV

Biak aragi bat izango dira

Bibliako Asiera izeneko liburutik artuta (2, 18-24)

Jainko Jaunak auxe esan eban:

—Ez dago ondo gizona bakarrik egotea. Egin dagiodan bere antzeko lagun bat.

Jainko Jaunak lurretik egin ebazan landako abere ta zeruko egazti guztiak, eta gizonaren aurrera eroan ebazan, zein izen ezarriko eutsen ikusteko, eta bizidun bakotxak gizonak emondako izena izan egian.

Gizonak etxe-abere guztiai, zeruko egazti guztiai eta landako pizti guztiai izena ezarri eutsen; baiña ez eban aurkitu bere antzeko lagunik.

Orduan, Jainko Juanak lo astun bat bialdu eban gizonaren gaiñera, eta gizona loak artu eban. Jainko Jaunak azur bat kendu eutsan eta utsunea barriro aragiz bete.

Jainko Jaunak gizonari kendu eutsan zatiaz emakume bat eratu eta gizonaren aurrera eroan eban. Orduan, gizonak auxe esan eban:

—Auxe bai ba-dala nire azurretako azur eta nire mamiñaren mamin! Onek emazte izango dau izena, gizonagandik izan da artua-ta. Orregaitik, gizona, bere aita-amak itzita, bere emazteagaz alkartuko da eta biak aragi bat izango dira.

V

Entzun, Israel: Zure Jainko Jauna biotz-biotzez izango dozu maite

Bibliako Deuteronomio izeneko liburutik artuta (6, 2-6)

Moises'ek erriari berba egin eta auxe esan eutsan:

—Zure Jainko Jaunari bildur izan egiozu, gaur zuri, zure semeai ta zure illobai iragarten dautsuedazan egindu ta erabagi guztiak bizi-

tzako egun guztietan gordeaz, luzaro bizi zaitezzen. Entzun, ba, Israel, eta arduraz gorde ta bete egizuz, zorientsu bizi eta eurrez ugaritu zaitezzen. Esan eutsun zure gurasoen Jainko Jaunak: «Esnea ta ezta darion lurra da».

Entzun, Israel: Jauna da gure Jaungoikoa, Jauna bakarrik. Zure Jainko Jauna biotz-biotzez, zure arima guztiaz eta zure indar guztiaz izango dozu maite.

Nik gaur emoten dautsudazan agindu guztiak, idatzita geratu daitezala zure biotzean. Esan eta esan egingo dautsezuz zure semeai etxean eta bidean, ogerakoan eta jagitean; ezagungarritzat lotuko dautsezuz zure eskuai, gomutagarri bat izango dira zure bekokian; zeure etxeko abe ta ateetan idatziko dozuz.

VI

Dana zeuena da, zuek Kristo'renak, eta Kristo Jaungoikoarena

San Paulo Apostoluak Korinto'koai egindako idazkitik artuta (3, 16-23)

Anai-arrebok:

Ez al'dakizue Jaungoikoaren etxe zareena, eta Jaungoikoaren Espiritua zeuekan bizi dana?

Norbaitek Jaungoikoaren etxea loitu ba'dagi, Jaungoikoak alakoa ondatu egingo dau. Jaungoikoaren etxea santua da-ta; etxe ori zaree zuek.

Ez bedi iñor atzipetu. Zuetariko norbait zuen artean gizarte onen eritziz jakitun delakotan ba'dago, zoro biurtu bedi, jakitun izan dadin.

Gizarte onetako jakituria Jaungoikoaren aurrean zorakeria da-ta, idatzita dagoanez: «Jakitunak euren maltzurkeritan lotuko dodaz». Eta beste atal baten: «Jaunak ba-daki jakitunen asmoak uskeria dirana».

Beraz, ez bedi iñor gizonakan arrotu, dana zeuena da-ta: naiz Paulo izan, naiz Apolo, naiz Zefas; naiz mundua, naiz bizitza, naiz eriotza, naiz oraingoa, naiz gerokoa: dana zeuena da; eta zuek Kristo'renak, eta Kristo Jaungoikoarena.

VII

Zuek, anaiok, askatasunera zaree deituak

San Paulo Apostoluak Galazia'koai egindako idazkitik artuta (4, 31b-5, 1, 13-18)

Anai-arrebok:

Geure burujabe izateko askatu gaitu Kristo'k.

Beraz, orretan sendo iraun egizue, eta ez itzi joputzako buztarpean ezi zagiezan.

Zuek, anaiok, askatasunera zaree deituak; askatasun ori ez egizue, orraitino, aragiaren morroitzarako artu, alkarri maitasunez lagun egiteko baiño.

Lege osoa, agindu bakar onetantxe dago batuta: «Zure lagun-urkoa zeure burua lez izango dozu maite».

Baiña alkarri aginka eta alkar iruntsiten ba'diarduzue, begira gero!: alkar ondatzen diarduzue.

Beraz, auxe dirautsuet: Ibili zaiteze Espirituaren eraz, eta ez dozuez beteko aragiaren gurariak. Aragiak espirtuaren aurka diardu; espirtuaren gurariak, barriz, aragiaren aurka: alkarren buruz-buru dagoz, eta, orregaitik, ez dozue nai zeukeena egiten.

Espirituaren eraz ba'zabize, ostera, ez zagoze Legepean.

VIII

Espiritu Santua jarten da gure alde ezin esan-alako antziz

San Paulo Apostoluak Erroma'koai egindako idazkitik artuta (8, 26-27)

Anai-arrebok:

Espiritu *Santuak* egiten dautso lagun gure makaltasunari, on yakuna eskatzen ez dakigu-ta; Espiritu *Santua* bera jarten da gure alde ezin esan-alako antziz.

Eta biotzak aztertzen dauzan Arek, ba-daki Espiritu *Santuak* gura dauana: zintzoen alde Jaungoikoaren eratara eskatzen dau-ta.

IX

Jaungoikoaren Itza egiñez bete egizue

Santiago Apostoluaren idazkitik artuta (1, 17-18. 21b-22. 27)

Anai-arreba maiteok:

Sari eder eta ondasun bikain guztiak zerutik datoz, aldatzerik ez biurtze-gerizperik be ez dauan argien Aitagandik jatsita.

Berak nai izanda, egiaren berbaz sortu gaitu, sortutakoetan asikiñak izan gakiozan.

Artu egizue apal-apalik zuekan mentatutako Itza: Berba ori zuen

arimak onik atarateko lain ba-da-ta. Jaungoikoaren Itza entzun bakarrik ez, baita egiñez bete be egizue, bestela zeuen buruak atzipetuko zeukeez-ta.

Jaungoiko Aitaren aurrean zintzotasun garbi ta orbanbagea, auxe da: umezurtzai ta alargunai euron atsekabeetan ikustaldiak egitea, eta mundu onetan loitu bagarik irautea.

X

Sasi-jainkoen irudiak bertan-beera itzi zenduezan, Jaungoikoa serbitzeko eta Aren Semearen zain egoteko

San Paulo Apostoluak Tesalonika'koai egindako leenengo idazkitik artuta (1, 5d-10).

Anai-arrebok:

Ba-dakizue zelan ekin geutsan zuen onerako zuen artean. Eta zuek, estualdi aundien artean be, Espiritu Santuagandiko pozez nik esandakoa (Barri Ona) arturik, geure ta Jaunaren jarraitzaille egin zintzazen, Mazedonia'ko ta Akaia'ko fededun guztien eredu izateraiño.

Izan be, Jaungoikoaren Itza zeuen bidez zabaldu da, Mazedonia'n eta Akaia'n bakarrik ez, baita bazter guztietara be eldu da Jaungoikoaganako zuen sinistea. Orretzaz ez dogu esatekorik. Izan be, guztien agotan dabil zuen artean izan genduan abegi ona, eta sasi-jainkoen irudietatik Jaungoikoagana biurtu zintzazela, egiazko Jaungoiko bizia-
ren morroitzan jarduteko, eta Jesus, Aren Semea —illen artetik Berak biztua—, zerutik noiz jatsiko dan zain egoteko: etorteko dan asarretik aldendu genduzana da-ta.

SALMU-KANTA

I

Sal. 39, 2 eta 4ab. 7-8. 8b-9. 10

Z/. Ona emen ni, zeure naia egiteko.

E/. Ona emen ni, zeure naia egiteko.

Z/. Ni Jaunaren zain-zain nengoan;

makurtu yatan eta entzun egin eban nire deadarra;

agoan abesti barri bat ipiñi eustan,

ereserki bat gure Jaungoikoarentzat. (E/.)

Zuk ez dozu oparirik ez eskintzarik nai,
baiña belarriak zabaldu zeustazan;
ez zenduan erre-oparirik nai;
orduán, auxe diñot: «Ona emen ni
—neure liburuan idatzita dagoanez—,
zeure naia egiteko». (E/.)

Ene Jaungoikoa, nai dot,
eta erraietan daroat zure legea.

Zeure salbamena iragarri dot
batzar nagusian;

ez dot nire ezpanik itxi:

ba-dakizu Zuk, Jauna. (E/.)

II

Sal. 145, 7. 8-9a. 9bd-10

Z/. Zorionekoak gogo lauak diranak,
Jaungoikoaren Erreiñua euren data-.

E/. Zorionekoak gogo lauak diranak,
Jaungoikoaren Erreiñua euren da-ta.

Z/. Jaunak zapalduai zuzentasuna egiten dautse,
gosetuai ogia emoten dautse.
Lotuak Jaunak askatzen dauz. (E/.)

Itsuari begiak Jaunak argitzen dautsaz,
makurtu-zorian dagozanak Jaunak ipinten dauz zuzen,
maite dauz Jaunak zintzoak,
Jaunak gordeten dauz bidez doozanak. (E/.)

Jaunak janaritzen dauz umezurtza ta alarguna
eta gaiztoen bidea naastu egiten dau.

Jauna errege da beti,

zure Jainkoa, Sion!, gizaldien-gizaldietan. (E/.)

III

Sal. 15, 1-2a eta 5. 7-8. 9-10. 11

Z/. Jauna da nire saila ta edontzia.

E/. Jauna da nire saila ta edontzia.

Z/. Zaindu nagizu, ene Jainko,
nire gordelekua Zeugan dago-ta;
auxe dirautsat Jaunari:
«Zeu zara nire ondasuna».
Jauna da nire oiñardetzaren saila ta nire edontzia,
zeure eskuan dago nire zoria. (E/.)

Onulari yatan Jauna bedeinkatuko dot,
gabez be irakatsi egiten nau barruz.
Jauna daukat beti nire aurrean,
nire eskumaldean Bera dodala
ez dot zirkiñik egingo. (E/.)

Orregaitik, poztu egiten yat biotza,
alaitu egiten yataz erraiak,
eta nire aragia nasai-nasai dago:
ez nozu eriotzara eroango-ta,
zure adiskideari usteltzea ezagutzen be
ez dautsazu itziko. (E/.)

Bizitza-bidea erakutsiko daustazu,
atsegiñez beteko nozu zure aurrean,
betiko pozez zure eskumaldean. (E/.)

IV

Sal. 127, 1-2. 3. 4-5. 6

Z/. Bedeinkatu gagizala Jaunak gure bizitzako egun guztietan.

E/. Bedeinkatu gagizala Jaunak gure bizitzako egun guztietan.

Z/. Zoriontsua Jaunari bildur dautsana,
eta Aren bideai jarraitzen dautsena!
Zeure lanaren frututik jango dozu,
zoriontsua izango zara, ondo joango yatzu. (E/.)

Zure emaztea, maatsondo ugaria lez,
zeure etxearen erdian;
zure semeak, oriondo-kimuak lez,
zeure maiaren inguruan. (E/.)

Olantxe izango da bedeinkatua
Jaunari bildur dautsan gizona.

Bedeinkatu zagizala Jaunak Sion'dik,
ikusi dagizula Jerusalem'en onaldia
zure bizitzako egun guztietan. (E/.)

Bedeinkatu zagizala Jaunak Sion'dik,
ikusi dagizuzala zure semeen semeak.
Bakea Israel'i! (E/.)

V

Sal. 17, 2-3a. 3b-4. 47 eta 51ab

Z/. Maite zaitut, Jauna, Zeu zara nire indar.

E/. Maite zaitut, Jauna, Zeu zara nire indar.

Z/. Maite zaitut, Jauna, Zeu zara nire indar,
Jaun, nire arkaitz, gaztelu, askatzaille. (E/.)

Nire Jainko, aitz, aterpe, babeskin,
nire indar askatzaille ta gordeleku. (E/.)

Goragarri yatan Jaunari egiten dautsat dei,
eta nire arerioakandik askatuta geratzen naz. (E/.)

Gora Jauna, bedeinkatua nire Arkatxa,
goratua izan daitela nire Jainko ta Askatzaillea.
Garaipen aundia emon zeutsan zure Erregeari,
zure Igurtzitakoari erruki izan zintzakiozan. (E/.)

VI

Sal. 1, 1-2. 3. 4 eta 6

Z/. Zoriontsua bere ustea Jaunagan jarri dauana.

E/. Zoriontsua bere ustea Jaunagan jarri dauana.

Z/. Zoriontsua gaiztoen asmoari
jarraitzen ez dautsan gizona,
pekatarien bidetik sartzen ez dana,
irrilarien batzarrean jesarten ez dana!
Aren atsegiña, ostera, Jaunaren legea da,
eta gau ta egun Aren legea ausnartzen dau. (E/.)

Ur-ertzean landatutako
zugatzaren antzeko da:
aldi egokian frutua dakar,
eta aren orriak ez dira zimeltzen;
eta egiten dauan edozer ondo jazoten da. (E/.)

Ez orrela gaiztoak, ez orixel!
aizeak daroan lastoa lez izango dira.
Jaunak zintzoen bidea zaindu egiten dau-ta;
gaiztoen bidea, barriz, ondatu egiten dau. (E/.)

VII

Sal. 88, 2-3. 16-17. 18-19

Z/. Beti abestuko dodaz Jaunaren errukiak.

E/. Beti abestuko dodaz Jaunaren errukiak.

Z/. Beti abestuko dodaz Jaunaren errukiak,
gizaldiz-gizaldi zeure zintzotasuna iragarriko dot.
Auxe esan neban-eta: «Zure errukia beti-betiko etxea da,
zerua baiño geiago sendotu dozu zure zintzotasuna». (E/.)

Bai zorientzua Zu goratzen dakian erria!
zeure aurpegiaren argitan ibiliko da, Jauna;
zeure izenaz poztuten dira egun oro,
zeure zuzentasunaz arrotzen dira. (E/.)

Aren dedu ta indarra Zeu zara-ta,
eta, zeure laguntzaz, gora jasoten dozu gure indarra.
Gure babeskiña Jauna da-ta,
gure erregea, barriz, Israel'en Santua. (E/.)

VIII

Sal. 85, 5-6. 9-10. 15-16a

Z/. Zu, Jauna, ona ta biotz-biguna zara.

E/. Zu, Jauna, ona ta biotz-biguna zara.

Z/. Zu, Jauna, ona ta biotz-biguna zara,
Zuri dei egiten dautsuenentzat errukiz aberatsa.
Entzun, Jauna, nire otoitza,
egon adi-adi nire eskariaren berbotsera. (E/.)

Erri guztiak etorriko dira, Jauna,
zure aurrean auspaztera,
eta zeure izena goratuko dabe:
«Aundia zara Zu, eta arrigarriak egiten dozuz,
Zeu zara Jainko bakarra». (E/.)

Zuk, ostera, Jauna, Jainko biotz-bigun eta errukior orrek,
asarrerako geldia,
eta errukiz eta zintzotasunez aberats orrek,
begiratu nagizu, erruki zakidaz. (E/.)

IX

Sal. 94, 1-2. 6-7. 8-9

Z/. Entzungo al dozue gaur Aren berbots au:
«Ez egizue gogortu biotza Meriba'n lez».

E/. Entzungo al dozue gaur Aren berbots au:
«Ez egizue gogortu biotza Meriba'n lez».

Z/. Etorri zaiteze, goratu dagigun Jauna,
txalo egin daiogun gu onik ataraten gaituan Arkatxari;
sartu gaitezcan Aren aurrera eskerrak emonez,
ospatu dagigun soñu-otsez. (E/.)

Sartu zaiteze, auspaztu gaitezcan,
gure egille dan Jauna bedeinkatuez.

Gure Jainkoa Bera da-ta;
gu, barriz, Aren erria,
Berak zaintzen dauan artaldea. (E/.)

Entzungo al dozue gaur Aren berbots au:
«Ez egizue gogortu biotza Meriba'n lez,
Masa'ko egunean basamortuan lez:
an, nire egintzak ikusi izanarren be,
zuen gurasoak arakatu ta zirikatu egin nenduen». (E/.)

X

Sal. 120, 1-2. 3-4. 5-6. 7-8

Z/. Laguntza Jaunagandik datorkit,
zeru-lurra egin ebazan Aregandik.

E/. Laguntza Jaunagandik datorkit,
zeru-lurrak egin ebazan Aregandik.

Z/. Nire begiak mendietara jasoten dodaz:
nondik etorriko yat laguntza?
Laguntza Jaunagandik datorkit,
zeru-lurrak egin ebazan Aregandik. (E/.)

Ez dau itziko zure oiñak laban egiten,
zure jagoleak ez dau lorik egiten;
Israel'en zaintzailleak
ez dau lorik egiten, ez atsedenek artzen. (E/.)

Jaunak bere gerizpean zaintzen zaitu,
zeure eskumaldean dago;
egunez ez dautsu eguzkiak kalterik egingo,
ezta gabez illargiak be. (E/.)

Jaunak gordeten zaitu gaitz guztitik,
Berak zaintzen dau zure arimea;
Jaunak zaintzen dauz zure sartu-urtenak,
orain eta beti. (E/.)

ALELUIA TA SALMU-KANTA EBANJELIO-AURRETIK

I

Sam. 1.^o, 3, 9; Jn. 6, 69b

Berba egin, Jauna, zure serbitzari onek entzuten diardu-ta.
Zure berbak betiko bizia emoten daben berbak dira.

II

Mt. 11, 25

Eskerrak emoten dautsudaz, Aita,
Erreiñuko ezkutua
gizon lauai agertu dautsezuzalako.

III

Jn. 6, 63b. 69b

Zure berbak, Jauna, espiritu ta bizia dira.
Zure berbak betiko bizia emoten daben berbak dira.

IV

Jn. 10, 27

Nire ardiak ezagutu egiten dabe nire abotsa
—diño Jaunak—,
nik ezagutu egiten dodaz eta areik jarraitu egiten dauste.

V

Jn. 17, 17ba

Zure mandatua egia da.
Santutu gagizuz egiatan.

VI

Ap. 16, 14

Zabaldu, Jauna, gure biotza,
zure Semearen berbak
ulertu dagiguzan.

EBANJELIOA

I

Jesus Galilea'ko Kana'n asi zan mirariak egiten

Jesukristo'ren Ebanjelioa Joan'en liburutik (2, 1-12)

Aldi aretan, Galilea'ko Kana'n eztegu bat ospatu zan. Jesus'en ama eztegurako deituta egoan, baita Jesus eta beronen ikasleak be. Eztegu-erdian ardaoa amaitu egin zan, eta Jesus'en amak bere semeari auxe esan eutsan:

—Ardaorik ez dauke.

—Andra! —erantzun eutsan Jesus'ek—, ez zaitetz nire gaietan sartu; ez da oraindiño nire ordua eldu.

Baiña Jesus'en amak serbitzariai auxe esan eutsen:

—Egizue Berak esan dagitzuena.

Arrizko sei ontzi egozan an, judarren oiturazko garbiketarako ipiñita, bakotxak eunen bat litro artzen ebazala.

Jesus'ek auxe esan eutsen:

—Ontziok urez bete egizuez.

Eta goragiño bete ebezan.

Beteta gero, Jesus'ek auxe esan eutsen:

—Atara orain apur bat eta eroan egiozue maiburuari.

Areik Jesus'ek esan eutsena egin eben.

Maiburuak ardao barria miastu eban, nondik etorren ez ekiala (ardao atara eben serbitzariak soillik ekien ori), eta, ain ardao onaz mirarituta, senargeiari dei egin eta auxe esan eutsan:

—Ardao ona, guztiak asierarako ataraten dabe, eta gero, maila-gunak ugari edan dabenean, txarragoa ataraten da. Zuk, ostera, ardao ona azkenerarte gorde dozu.

Galilea'ko Kana'n jazo zan ori. Jesus'ek egindako leenengo miraria izan zan. Alantxe agertu eban bere aintza, eta Beragan sinistu eben bere ikasleak.

Orren ostean, Jesus Kafarnaun'era jatsi zan, bere ama, senide ta ikasleakaz. Eta bertan geratu ziran egun batzuetan.

II

Ziorionekoak zuek, txirook; ai zuek, aberatsok!

Jesukristo'ren Ebanjelioa Lukas'en liburutik (6, 17. 20-26)

Aldi aretan, Jesus Amabiakaz menditik toki lau batera jatsi zan. Ikasle-talde batek eta judar-errialde guztitik, Jerusalem'dik eta Tiro ta Sindon'go itsasertzetik etorri ziran askok be lagun egiten eutseen.

Jesus'ek, bere ikasleakana begira, auxe esan eutsen:

—Zorionekoak zuek, txirook (*beartsuok*), Jaungoikoaren Erreiñua zeuena da-ta.

—Zorionekoak zuek, orain gose zareenok, aseak izango zaree-ta.

—Zorionekoak zuek, orain negar egiten dozenok, gero barre egin-go dozue-ta.

— Zorionekoak zuek, gizonak gorroto izan dagitzuenean, eta euren ondotik baztatu eta iraindu zagiezenean, eta, Gizasemeagatik, zuen izena lotsagarritzat artu dagienean. Poztu ta alaitu zaitzeze une ori eldu daitenean, zeruan sari aundia izango dozue-ta. Profetai be beste ainbeste egin eutseen laguntalde onen aurretikoak.

Ai zuek, aberatsok, ostera, orain daukazuen zoriona baiño ez dozue izango-ta!

Ai zuek, orain aseta zagozenok, gose izango zaree-ta!

Ai zuek, orain barre egiten dozenok, antzi ta negar egingo dozue-ta!

Ai zuek guztiak goratu zagiezenean, sasi-profetai be laguntalde onen aurretikoak beste ainbeste egin eutseen-eta!

III

Arri-biziaren gaiñean jasotako etxea eta lur aretsuaren gaiñean jasotako etxea

Jesukristo'ren Ebanjelioa Mateo'ren liburutik (7, 21-27)

Aldi aretan, Jesus'ek bere ikasleai auxe esan eutsen:

—Ez dira Jaungoikoaren Erreiñuan sartuko «Jauna, Jauna» diñoen guztiak, zeruko nire Aitaren naia egiten dabena baiño.

Auzi-egunean askok auxe esango dauste: «Jauna, Jauna: zure izenean Jaungoikoaren mandatua iragarri dogu, eta zure izenean mirari asko egin doguz».

Alan be, nik auxe erantzungo dautset: «Ez zenduedazan iñoiz be eza-gutu. Alde nigandik, bizitza *guztia* gaiztakerietan egin dozenok!».

Nire berbak entzuten eta egiñez beteten dauzan edonor, bere etxea arri-biziaren oiñarri-gaiñean jaso eban gizon zuurraren antzekoa da. Etorri ziran euriak, ibaiak gaiñez egin eben eta aizeak etxea indartsu jo eban; baiña etxe a ez zan jausi, arri-biziaren oiñarri-gaiñean jasota egoan-eta.

Nire berbak entzunda gero, egiñez beteten ez dauzan edonor, ostera, bere etxea lur aretsuaren gaiñean jaso eban gizon tentelaren antzekoa da. Etorri ziran euriak, ibaiak gaiñez egin eben eta aizeak etxe a indartsu jo eban; eta beera jausi zan, eta aren ondapena aundia izan zan.

IV

Bere gurutzea artzen ez dauana, ez da niretzako gai. Norbaitek zuek onartzea, neu onartzea lez da

Jesukristo'ren Ebanjelioa Mateo'ren liburutik (10, 37-42)

Aldi aretan, Jesus'ek bere ikasleai auxe esan eutsen:

—Bere aita naiz ama, ni baiño geiago maite dauana, ez da niretzako gai. Bere semea naiz alabea ni baiño geiago maite dauana, ez da niretzako gai. Eta niri jarraitzeko, bere gurutzea artzeko gertu ez dagoana, ori be ez da niretzako gai. Bere bizia onik atara nai dagianak, galdu egingo dau; baiña neugaitik galdu dagiana, ori onik urtengo da.

Norbaitek zuek onartzea, neu onartzea lez da; eta norbaitek ni onartzea, ni bialdu nauan A onartzea lez da.

Profeta bat profeta dalako onartzen dauanak, profetari dagokion saria izango dau; eta gizon zintzo bat gizon zintzoa dalako onartzen dauanak, gizon zintzoari dagokion saria izango dau.

Eta edontzi bete ur nire ikasleatariko txikienari neure ikasle dalako emon dagiona, benetan dirautsuet: ez da alakoa sari bagarik geratuko.

V

Nor da nire lagun-urkoa?

Jesukristo'ren Ebanjelioa Lukas'en liburutik (10, 25-37)

Aldi aretan, Lege-irakasle batek, Jesus zirikatu nairik, itaun au egin eutsan:

—Irakasle, zer egin bear dot betiko bizitza jaristeko?

Jesus'ek auxe erantzun eutsan:

Zer dago Moises'en legean idatzita? Zer irakurten dozu an?

Arek auxe erantzun eban:

—Zure Jainko Jauna biotz-biotzez, zure arima guztiaz, zure indar guztiaz eta zure adimen guztiaz izango dozu maite; eta zure lagun-urkoa zeure burua lez.

Jesus'ek auxe esan eutsan:

—Ederto erantzun dozu. Orixe egizu eta bizi izango zara.

Baiña Lege-irakasleak, bere itauna zuritzeko, auxe itandu eutsan barriro:

—Eta, nor da nire lagun-urkoa?

Eta Jesus'ek ari:

—Gizon bat, Jerusalem'dik Jeriko'ra jatsiten zala, lapurren eskuetan jausi zan, eta oneik, arek eroian guztia ari kendu ta gizona astin-astin eginda gero, erdi illik itzirik, joan egin ziran. Zerbait geroago, bide aretatik bertatik abade bat igaro zan, eta zauritua ikusita, arek aurrera jo eban. Lebitar batek be, toki aretara eltzean, ikusi bai, ikusi egin eban zauritua, baiña arek be aurrera jo eban. Azkenez, samariar bat eldu zan, eta, zauritua ikustean, erruki izan yakon. Aregana urreraturik, osatu

egin eban, eta, aren zaurietan orioa ta ardoa ezarririk, zauriak lotu egin eutsazan, bere asto-gaiñean ipiñi, ondoko ostatura eroan eta bere ardurapean artu eban. Biaramonean, samariarrak bere bideari jarraitu bear izan eutsanean, ostalariari dirua emonik, auxe esan eutsan: «Zaindu ondo gizon au. Orain izten dautsudana baiño geiago eralgiten ba' dozu, onuntz etorterakoan ordainduko dautsut».

Ea, ba: iru gizonotarik, nor deritzazu lapurren eskuetan jausitakoaren lagun-urkoa izan zala?

—Aretzaz erruki izan zana —erantzun eban Lege-irakasleak.

Eta Jesus'ek ari:

—Zoaz, ba, eta egizu zeuk be bardin.

VI

Nogana joango gintzakez? Zure berbak betiko bizia emoten daben berbak dira

Jesukristo'ren Ebanjelioa Joan'en liburutik (6, 60-70)

Aldi aretan, Jesus'i jarraitzen eutsoenatariko askok, guzti ori entzutean, auxe esan eban:

—Irakaspen ori onartu-eziñezkoa da. Nok onartu daike orrelakorik?

Jesus'ek, bere jarraitzaileatariko askok bere irakatsiari buruz mormoxetan ziarduela konturaturik, auxe esan eutsen:

—Gogor egiten yatzue au ontzat artzea? Eta zer jazoko litzake Gizasemea leen egoan tokira igoten ikusiko ba'zendue? Espiritua da bizia emoten dauana; aragiak ez dau ezetarako balio. Nik esan dautsuedazan berbak, espiritu ta bizia dira. Baiña zuetariko batzuek ez dabe sinisten.

Jakin be ba-ekian Jesus'ek asierarik, sinisten ez ebenak nortzuk ziran eta Bera salduko ebana nor zan. Eta auxe esan eban gaiñera:

—Orrexegaitik esan dautsuet, ezin onartu naikela iñok, neure Aitak erakarten ez ba'dau.

Arrezkero, Jesus'i jarraitzen eutsoenatariko askok atzeruntz egin eban, eta gero ez ebizan Jesus'egaz.

Jesus'ek Amabiai auxe itandu eutsen:

—Zuek be bertan-beera itzi nai nozue?

Simon Pedro'k auxe erantzun eutsan:

—Jauna, nogana joango gintzakez? Zure berbak betiko bizia emoten daben berbak dira. Guk sinisten dogu eta ba-dakigu Zu Jaungoikoaren Santua zarana.

VII

Zazpi bidar bakarrik ez, baita irurogeta amar bidar zazpi aldiz be

Jesukristo'ren Ebanjelioa Mateo'ren liburutik (18, 21-35)

Aldi aretan, Pedro'k, Jesus'egana urreraturik, auxe itandu eutsan:

—Jauna, zenbatetan parkatu bear dautsat nire anaiari, iraintzen ba'nau? Zazpi bidar bai?

Eta Jesus'ek ari:

—Zazpi bidar bakarrik ez, baita irurogeta amar bidar zazpi aldiz be.

Orregaitik, Jaungoikoaren Erreiñua, bere serbitzariakaz kontuak garbitu nai izan ebazan errege baten antzekoa izan daiteke. Kontu-garbitzen astean, milloek asko zor eutsazan bat etorri yakon. Gizon onek bere zorra ezin ordaindu eikean ezkeru, gizona, onen emaztea ta seme-alabak morroitzat saltzeko agindu eban ugazabak, baita aren ondasun guztiak be saldu egiezala, zor ebana kitatzeko.

Morroiak, bere ugazabaren aurrean belaunikoturik, erreguka zirautsan:

—Itxaron egidazu, guztia ordainduko dautsut-eta.

Ugazabak, morroi aretzaz errukituta, zorra parkatu eta joaten itzi eutsan. Baiña urtetean, morroi arek uskeria bat zor eutsan bere lagunetarikoa bat aurkitu eban. A ikusita batera, samatik oratu eta auxe esan eutsan:

—Ordaindu egidazu zor daustazuna!

Aren lagunak, aren aurrean belaunikoturik, erreguka zirautsan:

—Itxaron egidazu, guztia ordainduko dautsut-eta.

Baiña besteak ez eban nai izan; eta, joanda, espetxean sarrerazo eban, zorra ordaindu arte.

Gaiñetiko morroiak, guzti ori ikustean, atsekabez bete ziran, eta jazotakoa ugazabari esatera joan ziran. Orduan, ugazabak morroi ari dei egin eta auxe esan eutsan:

—Gaiñeto ori, zor guztia parkatu neutsun nik zuri, zuk erreguka eskatu zeustalako; baiña zuk ez dozu zure lagunaz erruki izan nai, ni zutzaz erruki izan nintzanez.

Eta ugazabak, asarratuta, zigortzailleen eskuetan itzi eban, zor guztia ordaindu egian arte.

Orixe egingo dautsue zeuei be zeruko nire Aitak —amaitu eban Jesus'ek—, baxotzak bere anaiari biotzez parkatzen ez ba'dautso.

VIII

Irakasle, ikusi dagidala barriro

Jesukristo'ren Ebanjelioa Markos'en liburutik (10, 45-52)

Aldi aretan, Jesus, bere ikasleak eta laguntalde aundia lagun ebazala, Jeriko'tik urtetean, Timeo'ren seme zan Bartimeo izeneko itsua bide-ondoan jesarrita egoan, eskean. Andik igaroten zana Nazaret'eko Jesus zala entzutean, deadarka asi zan:

—Dabid'en seme ori, erruki zakidaz!

Isildu zeitela zirautsoen askok; baiña arek gero ta deadar andia-goak egiten ebazan:

—Dabid'en seme ori, erruki zakidaz!

Orduan, Jesus'ek, gelditurik,

—Dei egiozue —esan eban.

Itsuari dei egin eta auxe esan eutsoen:

—Uste ona izan; jagi zaitez, dei egiten dautsu.

Eta itsua, bere soingaiñekoa jaurtirik eta salto bat egiñik, Jesus'egana urreratu zan.

—Zer nai dozu egin dagitzudan? —itandu eutsan Jesus'ek.

Eta itsuak Jesus'i:

—Irakasle, ikusi dagidala barriro.

Eta Jesus'ek ari:

—Joan zaitez. Zeure sinismenagaitik geratzen zara osatuta.

Eta, bat-batean, Bartimeo'k barriro artu eban ikusmena, eta Jesus'i beronen bidean jarraitzen eutsoenai batu yakon.

IX

Emakume alargun beartsu orrek geiñetiko guztiak baiño geiago bota dau

Jesukristo'ren Ebanjelioa Markos'en liburutik (12, 38-44)

Aldi aretan, Jesus'ek laguntaldeari irakatsi eta auxe zirautsen:

—Gorde zuen buruak Lege-irakasleakandik; onei, jantzi dotorez ibiltea, guztien aurrean agurtuak izatea, sinagogetan aurrengo lekuak eta janaldietan leenengo jarlekuak artzea gura izaten dabe. Emakume alargunen ondasunak iruntsi eta, orren atxakiaz, otoiitz luzeak esaten dabezan orreik, zigorrik gogorrena artuko dabe!

Jesus, jauretzean eskingai-kutzaren aurrean jesarrita, bertara dirua

botaten ebenai begira egoan. Aberats askok dirua ugari botaten eben. Orduan, emakume alargun beartsu batek, ara elduta, balio oso gutxiko diru bi bota ebazan. Orduan, Jesus'ek bere ikasleai dei egin eta auxe esan eutsen:

—Benetan dirautsuet: emakume alargun beartsu orrek gaiñetiko guztiak baiño geiago bota dau kutxara. Izan be, beste guztiak gaiñezka ebena bota dabe; orrek, ostera, berak bear ebana bota dau: berak eukan guztia, bizi izateko eukan guztia.

X

Bere aulki goragarrian jesarriko da, eta alkarregandik banandu egingo dauz

Jesukristo'ren Ebanjelioa Mateo'ren liburutik (25, 31-46)

Aldi aretan, Jesus'ek bere ikasleai auxe esan eutsen:

—Gizasema, bere aingeru guztiak lagun dauzala, bere aintza guztiaz etorri daitenean, bere aulki goragarrian jesarriko da. Bere aurrean izango dira batuak munduko naziño guztiak, eta alkarregandik banandu egingo dauz, artzaiñak ardiak akerrakandik banantzen dauzanez, ardiak alde batean eta akerrak bestean jarririk. Orduan, erregeak batzui auxe esango dautse:

—Zatozte, nire Aitaren bedeinkatuok!; artu egizue munduaren asierarik zeuentzat atondutako erreñua. Izan be, gose izan nintzan eta zuek jaten emon zeusten; egarri nintzan, eta edaten emon zeusten; arrotz lez eldu nintzan, eta zeuen etxean artu nenduzuen; billoizik ikusi nenduzuen, eta jantzia emon zeusten; geisorik egon nintzan, eta ikustaldia egin zeusten; espetxean egon nintzan, eta ikustera etorri zintzakidazen.

Orduan, zintzoak auxe erantzungo dautsoe:

—Jauna, noiz ikusi zenduguzan, ba, goserik edo egarri, eta noiz emon geutsun jaten edo edaten? Noiz eldu zintzazan, ba, arrotz lez, eta noiz artu zenduguzan gure etxean? Noiz ikusi zenduguzan billoizik, eta noiz emon geutsun jantzia? Noiz egon zintzazan geisorik edo espetxean, eta noiz joan gintzazan zu ikustera?

Eta erregeak auxe esango dautse:

—Benetan dirautsuet: nire anai oneitariko apalenaren alde egin dozuena, neuri egin daustazue.

Besteai, ostera, auxe esango dautse:

—Alde nigandik, madarikatuok, deabruarentzat eta beretarrentzat

atonduta dagoan betiko sutara! Izan be, gose izan nintzan, eta ez zeusten jaten emon; arrotz lez eldu nintzan, eta ez nenduzuen zuen etxean artu; billoizik ikusi nenduzuen, eta ez zeusten jantzirik emon; geisorik eta espetxean egon nintzan, eta ez zeusten ikustaldirik egin.


Orduan, areik be auxe erantzungo dautsoe:

—Jauna, noiz ikusi zenduguzan, ba, goserik, edo egarri, edo arrotz, edo billoizik, edo geisorik, edo espetxean, eta ez geutsun laguntzarik eskiñi?

Eta arek auxe esango dautse:

—Benetan dirautsuet: apalenen alde egin ez zenduena, neuri be ez zeusten egin. Beraz, oneik betiko zigorrera joango dira; zintzoak, ostera, betiko bizitzara.





AURKIBIDEA

Jakingarri batzuk	5
Domeketako batzarrak, meza bagarik	7
'OSPAKIZUNA	11
Sarrerarako	13
Itzaren Liturgia	17
Fedea autortzea	19
Jaingo-erriaren Otoitza	21
Jaunartzerako	27
Azken-agurra	35
GEIGARRIA (IRAKURGAIAK)	37
Abendua	39
— Leenengo irakurgaia	39
— Salmua	40
— Aleluia ta Salmu-kanta Ebanjelio aurretik	42
— Ebanjelioa	42
Garizuma	45
— Leenengo irakurgaia	45
— Salmua	47
— Salmu-kanta Ebanjelio-aurretik	50
— Ebanjelioa	51

Pazko-aldia	55
— Leenengo irakurgaia	55
— Salmua	58
— Aleluia ta Salmu-kanta Ebanjelioaren aurretik	62
— Ebanjelioa	63
Geienetakoa	69
— Leenengo irakurgaia	69
— Salmua	74
— Aleluia ta Salmu-kanta Ebanjelioaren aurretik	80
— Ebanjelioa	81



KEREXETA'REN IDAZLANAK

1. **ORBELAK** (1959) (Agortuta).
2. **BITARGI** (1960) (Agortuta).
3. **JESUKRISTO GURE JAUNAREN BARRI ONA** (lau Ebanjelioak alkartuta: 1960-1961) (Agortuta).
4. **APOSTOLUEN EGIÑAK** (1961) (Agortuta).
5. **EGUNEROKO MEZA** (Missale Romanum: 1963) (Agortuta).
6. **GOGARTEAK** (Aita Basabe-Kerexeta: 1963).
7. **DIDAJE** eta **APOSTOLUEN SINISKITZA** (1965) (Agortuta).
8. **APOSTOLUEN EGIÑAK ETA IDAZKIAK** (Novum Testamentum: 1955) (Agortuta).
9. **ALKARTASUN BARRIKO ITZAK ETA GAIK** (1965) (Agortuta).
10. **ARGI-BIDE TXIKIA** (Zugasti-Kerexeta: 1965).
11. **JESUKRISTO GURE JAUNAREN BERRI ONA** (lau Ebanjelioak alkartuta, gipuzkeraz: Kerexeta-Zugasti: 1966) (Agortuta).
12. **JESUKRISTO'REN BARRI ONA** (lau Ebanjelioak: 1966) (Agortuta).
13. **ITUN BERRIA** (Novum Testamentum, osorik, gipuzkeraz: Orixe-Kerexeta-Zugasti: 1967; 2'garren argitarapena: 1974).
14. **SALMUTEGIA** (1967) (Agortuta).
15. **SALMUDIA** (gipuzkeraz: Kerexeta-Zugasti: 1968) (Agortuta).
16. **UMEEN BIBLIA** (1969; 2'garren argitarapena: 1974; 3'garrena: 1982).
17. **UMEEN BIBLIA** (gipuzkeraz: Kerexeta-Zugasti: 1969) (Agortuta).
18. **DICCIONARIO ONOMASTICO Y HERALDICO VASCO** (cinco volúmenes: 1970-1971-1972 y 1974). 2.390 pta. ale bakotxa.
23. **GURE SALBAZIÑO-EGINTZA** (Alkartasun Barria: Ascea-PPC'na: 1972) 90 pta.
24. **ALKARTASUN BARRIA** (Novum Testamentum, osorik; 2'garren argitarapena: 1972) 275 eta 375 pta.
25. **JESUKRISTO'REN BARRI ONA** (2'garren argitarapena; euskeraz eta erderaz: 1973) 275 eta 375 pta.
26. **EBANJELIO ALKARTUAK** (1973) (Agortuta).
27. **KRISTAU-IKASBIDEA** (4'garrena) (1974) 50 pta.
28. **ELIZ-GURASO APOSTOLIKUAK** (Padres Apostólicos) (1975). (1976'garren urtean Baiona'n Agirre-Saria irabazi ebana) 300 pta.
29. **EUSKAL-BIBLIA** (1976) 1.100 eta 1.500 pta.
30. **MEZAKO IRAKURGAIK EUSKAL-BIBLIAN** (1976) 50 pta.
31. **ASTEGUNETAKO MEZA-OTOITZAK ETA JAINKO-ERRIAREN OTOITZA** (1977) 300 pta.
32. **DICCIONARIO EUSKERICO** (1977) 160 pta.
33. **IPARRAGIRRE'REN BIZITZA** (1978) 640 pta.
34. **GERNIKA'KO BESTE ARBOLA** (1979) 640 pta.
35. **ORBELAK, BITARGI** (2'garren argitarapena), **UDAZKEN** (1980) 325 pta.
36. **ELIZEAREN OTOITZA** (1982).
37. **DOMEKA ETA JAIEGUNETAKO OSPAKIZUNAK ABAD E BAGARIK** (1982).

JAIME DE KEREXETA
San Roque, 24 - Tel. 6820012
Elorrio (Bizkaia)